

2011KO MAIATZAK 16

16 DE MAYO DE 2011

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO MAIATZAK 16

DIA: 16 DE MAYO DE 2011

HASIERA ORDUA: 18:00

HORA DE COMIENZO: 18:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Pilar ETXABE IRIONDO
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Nerea EPELDE AZKUE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Cristina FORCADA UNANUE
Aitor LEIZA ALBERDI

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por el ematen du. Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA):

EZ OHIKO plenoari hasiera emango diogu...

Esan bezala EZ OHIKO plenoari emango diogu hasiera, aurrenengo puntua ohikoa izaten den bezala:

AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (2010.12.01; 2011.03.31; 2011.04.28) eta hemen hiru akta dauzkagu, bat abenduak 1koa; martxoaren 31koa eta apirilaren 28koa. Bateren batek zerbait esateko,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Nik akta batean,

Esan baino gehiago, aurrekoan pasatu nizun korreos, Gorka, idatzia eta nahi nuke bueno... ordenagailuan daukazu baina bueno... laburpen bat egin duzu baina osoa ipintzea, zeren, ez naiz sartzen eztabaidetan, egon ziren eztabaida guztietan ez naiz sartzen, bakarrik azaltzen dut espozisioa gaiena eta apuntatuta neukan zer esan nuen eta beste eztabaida guztietan ez dut ezer esaten.

Ze... laburpena ondo dago baina iruditu zait gauza bat edo falta dela, nahi baduzu paperean ematen dizut orain? Bale.

Ba... horixe besteetan ez daukat ezer

Ba... onartzen da akta. Onartzen da.

Bigarren puntuari dagokionez, gai-ordenean aldaketa bat egingo dugu, aurrenengo puntua da, OGASUNA.-

ZUMAIA UDALEKO 2011. URTERAKO 6. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA BIDEZKO BALDIN BADA, eta deritzogu logika gehiago daukala Hirigintzaren aurrenengo puntuaren ondoren onartzea, beraz proposatzen dut HIRIGINTZA ondoren

07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELAK ESKUALDATZEKO puntu horren ondoren eztabaidatzea, eta beraz,

ekingo genioke OGASUNEAN bigarren puntuari MUSIKA PATRONATUKO 2011 urterako 1. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA BIDEZKO BALDIN BADA.

Honen kontu dagoeneko MUSIKA PATRONATU bertan hitz egin izan dugu, onartu ere bai eta gaur plenora dakarkigu hau onartua izan dadin. Bateren batek zerbait esateko,

Musika Patronatua, 2.2

MUSIKA PATRONATUKO 2011 urterako 1. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA BIDEZKO BALDIN BADA.

Hemen esaten dut, bateren batek zerbait esateko badaukan puntu hontan, Inork ezerrez... ba bozkatzera,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bai, nik badaukat,

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): Ah! Pili

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Oker ez baldin banago, ari gara esaten partida batzuk gutxitzen direla eta beste batzuk gehitu ba... 72.000ko diferentzi horrekin, ezta?

Ba... ni hor ez nago ados Musika Patronatuko talde batzueri diru bat kentzen zaielako eta hau da, erderaz esan da Santu bati erropa kentzen zaio beste bat janzteko.

Ez nago ados taldeei dirua gutxitzea beste bati pixkat gehiago emateko.

Ikusten dut gero balantzea edo gero gastuetan ez dela gastatu ipini zen guztia orduan diferentzi hori, nik esaten dut, bueno... nik proposatu nuen ere, bueno... bertan ez nintzen izan baina nire proposamena bidali nuen idatziz esanez ikusten nuela gastuetatik gaintzea.

Orduan ba... bueno hemen egin den klasifikazio honekin ez nago ados.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): Oso ondo,

Besteren batek zer edo zer esateko?

Inork ezerrez?

Ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: ARALAR-ALTERNATIBA Aldeko botua, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Kontra,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontrako botua, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, eta EA-k ere aldeko botua

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 2
ARALAR /ALTERNATIBA; 3
TALDE MISTOA; 1 EA)
Aurkako botuak: 1 botua (1
INDEPENDIENTEA)
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4
EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 2
ARALAR /ALTERNATIBA; 3
TALDE MIXTO; 1 EA).
Votos en contra: 1 voto
(1INDEPENDIENTE)
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: MUSIKA
PATRONATUKO 2011.
URTERAKO 1. KREDITU
ALDAKETA ONARTZEA.

PRIMERO: APROBAR, LA
MODIFICACION DE CREDITO
NUM. -1- DEL 2011 DEL
PATRONATO DE MUSICA.

BIGARRENGOA: Erabaki
hau legeak agindutako eran
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
argitaratzea jendeak horren berri
izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal
forma el presente acuerdo en el
Boletín Oficial de Gipuzkoa para
general conocimiento

Beraz, onartutzat ematen da.

2.3.- ZUMAIA UDALEKO 2010. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTU EMATEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Joseba,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA):
Puntu hontan ikusiko duguna da batzordean ikusi genuen, hazienda
batzordean, apirilean eta ematen da berri 2010eko kontuen itxierari,
likidazioari.

Testu bat irakurriko dut, Gastuekin hasiko naiz, bueno... hasiko naiz
udaletxekeokin, bai esan dugu Udaleko kontuak direla,

Gastuakin hasiko naiz,

Gure hirugarren urte hontan exekuzio emaitzak oso onak izan dira,
aurrekontu osoaren %81,6 exekutatu dugu, 17,3 miloitik 14,1 exekutatu
dugu,

Emaitzak altuak dira bai kopuruak eta baita ere portzentaia ikusita,

Gobernuan sartu ginenean 2007an kritikatu zeniguten ezer ez egitea, guk
urte erdi bakarrik kudeatu genuen eta gainera berriak ginen eta azken
hamarkadetako kudeaketa erdua aldatu nahi genuen eta hortarako noski,
denbora ere behar genuen.

Pixkanaka-pixkanaka igotzen joan gara 2008an gure lehenengo urtean,
bere osotasunean %64a exekutatu genuen; 2009an 75a eta oraingo hontan
81a.

Lehenengo kapituluari dagokionez, bueno % 100a exekutatu da, bigarren
kapitulua 91,76; laugarren kapitulua 94,54; gehiago izan zitekeen
laugarren kapituluan zeren dago partida konpletu bat ia 200 mila eurotako
reserbatzen dena Urola-Kostako Mankomunitatearentzat eta ez da
kontsideratzen exekutatuta dagoela, nahiz eta hor egon reserbatuta.

Seigarren kapituluari dagokionez, inbertsioetan %60,26 exekutatu dugu. Kapitulu hontan ere, lehengo istoriora bueltatuta ez ginen oso onso hasi 2007an baina baita ere hobetzen joan gara, azken urtean % 60 gainditu dugu eta azken urtea ikusten dena inbertsioetan %60a baino exekutatu dena 2004. urtea da, baina baita ere esan behar da orduan kopuruari dagokionez 4,4 miloi zirela eta orain berriz 6,3 direla.

Kuantitatiboki 2009 eta 2010ean exekutatu diren inbertsioak ez dira inoiz exekutatu.

2009an exekutatu ziren lau miloi pasa, lau miloi eta ehun eta 2010ean ia lau miloi, guztira zortzi miloi exekutatu dira bi urte hauetan, zortzi miloi bi urtetan.

Juxtu, juxtu pare bat urtetan, urtean baten azaltzen dira hiru miloi juxtu exekutatuta bi milagarren urtetan.

Dena dela egia da exekutatu gabe gelditu direla aurreko urteko... esan behar da kontu hauek azaltzen direla aurreko urteko abendurarte, 2011ak ez du balio, orduan gelditu ziren egin gabe Jadarreko rehabilitazioa, hau orain hasita dagoena eta baita ere bariantearena zeren, hori diru kopuru hori kobratu genuen urte bukaeran, orduan ba... bueno ezinezkoa zen hastea azaroan edo abenduan.

Diru-sarrerari dagokionez kobratu dira portzentaian %72a; 72a kobratzearen arrazoia, bi arrazoi nagusi daude hori arrazoitzen dutenak, batetik zortzigarren kapitulua eta bestetik bederatzigarrena.

Zortzigarren kapituluari dagokionez remanentea dago hor eta remanentea erabili dugu eta remanente hau ere ez da kontsideratzen urteko diru sarrera bezala eta bederatzigarren kapituluari dagokionez 2,7 miloi zeuden aurreikusita eskatuko genuela, mailegu bat eskatuko genuela eta ez da ezer ere eskatu, dakizuten bezala ez da zentimo bat ere eskatu.

Lehenengo kapituluan eta hirugarrenean, zerga zuzenak eta tasak % 100na baino gehiago kobratu dugu baina hau logika bat dauka, zeren, aurrekontu hau luzatatu dago, ez zen aurrekontu hau onartu, luzatuta zeuden eta ez ziren kopuruak igo ere, orduan pixkat gehiago kobratu dira.

Bigarren kapituluan, baita ere dexente gehiago kobratu da aurreikusita zegoena baino, baina... baita ere lehenengoetan bezala aurrekontu luzatua zegoenez ba... normala da kasu hontan "obrakin" inoiz ezin da jakin aldatuko diren, jaitsiko diren edo zer... baina urte hontan ba... aurrekoarekin konparatuz igo egin dira.

Dena dela, aspaldi kobratzen ziren kopuruetatik oso urruti gaude eh?

Miloi bat inguru kobratzen ziren krisia baino lehen.

Laugarren kapituluan, aurreko ondo atera da, oraingo hontan FOFIM-a ia bere osotasunean kobratu dugu, azken bi urtetan ez bezala eta % 100ean exekutatu da.

Baina baita ere obrakin esan dudana bezala, asko falta da oraindik krisiaren aurretik zeuden garaietara iristeko, FOFIM-ari dagokionez.

Gero beste datu batzuk esango ditut, azkenean diru-sarrerak eta gastuak ikusita 2010eko emaitza 368 mila izan da negatiboan eh? Hau da, gehiago exekutatu dugu edo gastatu dugu diru-sarrerak baino, diru-sarrerak izan direnak baino.

Gerakina egon da 2.372.000koa, gerakin hortatik 2011ako aurrekontuetara inkorporatu ditugu 1.500.000 ia, 1.494.000, eta baita ere aurreikusi behar da 2011ko aurrekontu luzatuan beste 300.000 € defizita aurreikusten dela, beraz gerakin horri kentzen badiogu inkorporazioak eta teorian egongo litzakeen defizit hori, geratuko litzake 573.000 €.

Hemen baita ere kontutan hartu behar da, ez dagokio itxiera honi baina denok dakizuten bezala Zumaia Lantzenek Udalari miloi bat zor dio eta printzipioz hori ere aurreikusi egin behar da, baina esan dudan bezala itxiera honi ez dagokio, eta printzipioz ez daukat besterik esateko udalari dagokionez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Agian, nahiz eta beste puntuak diren baita ere... dena segido egingo dugu eta gero... bai Musika Patronatua eta San Juan Egoitza eta gero bateren batek zerbait esan nahi baldin badu,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno ba... besteari dagokionez, bakarrik datu batzuk neukan asmoa esateko, zeren, denok dakigune Udaletxeko aurrekontua da haundiena, baina besteak ere.... bueno... San Juan Egoitza askoz ere txikiagoa da eta Musika Patronatua zer esanik ez.

Musika Patronatuari dagokionez, gastuak exekutatu dira % 94an, diru-sarrerak %99an, emaitza urtekoa positiboa izan da, 11.671 € eta gerakina ere positiboan da 44.000 eurotako, eta

San Juan Egoitzari dagokioez, gastuak exekutatu dira %96an, diru-sarrerak %86an, emaitza izan da 2010ekoa 175.000 negatiboan baina gerakina positiboan dago 114.000 eurotako.

Eta ez daukat besterik esateko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno alderdien iritzia, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Esan duzunean “kontuhartzaileak egiten duen aipamena”: “Queda pendiente la inclusión obligatoria del presupuesto de gastos el préstamo a largo plazo

concedido a Zumaia Lantzen por un importe de 1.059.505 €” esan duzu ez dagokiola itxiera honi,
Ez badagokio zergatik egiten du aipamen espreso hori?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Hori Kontuhartzailearen informea da eta noski kontutan eduki behar dugula, baina itxiera, itxierari ez dagokio, dakizun bezala eta hamar mila aldiz esan dudana bezala, bai batzordetan eta bai hemen datorren urteko itxierari dagokio, 2011koari, 2012an egingo dena.
O sea que ondo esan dut ez?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Nik bakarrik galdetu egin dizut. Arrazoia? Ez dut esan ondo edo gaizki esan duzunik. Ondo esango zenuen, arrazoitu baldin baduzu, ez?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Nik galdetu egin dizut,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Hemen kontua da aipatu dituzula exekuzio mailak eta zenbat inbertsio exekutatu dituzuen e.a., eta bueno, en fin... bai...
Azken finean: “resultado presupuestario (antes de ajustes) del ejercicio corriente -1.318.863,26 €”, eta gero horri ba... remanenteak eta aplikatuz: “remanente disponible”, momentu honetan, “al cierre del 2010, 573.138 €”. Nolabaiteko garrantzia izango du ba -nahiz eta “ez dagokion itxiera honi egindako aipamenak”-, alegia, Zumaia Lantzeni emandako epe motzerako zen kreditu hartatik oraindik ere, eta epe luzerako kreditu bilakatuta, 1.059.000 € geratzen direla kobratu gabe. Edo kobratu ezinik... norberak ulertu dezala nahi duen bezala. Hori 2011ko itxieran ikusiko dugu eta 2011. ere abiadura handia darama, beraz, oso presente edukitzeko moduko zifra da bai! Ez hori bakarrik, baizik eta, nahiz eta badakigun ez den itxiera honi dagokion kontua, nonbait, udalak hartu du baita erabakia Zumaia Lantzeni beste epe luzerako mailegu bat ematekoa, beste 500.000 €tako... Ez dakidana da, bigarrenko aipamen bat ere jarri beharko litzatekeen “oso presente edukitzeko” zein izango den egoera, zeren, klaro 500.000 €tako remanente positiboa geratzen baldin badira aplikazio guztiak eginda 2010eko itxierarenak, eta ia, dagoeneko, baldin badaukagu 1.500.000 epe luzerako kreditutan..., horrek erreflejo negatiboa izango

duena... bitako bat edo 2011ko aurrekontuen likidazioaren aurrean, (oraindik ere hilabete batzuk falta direla badakigu, bale!) ikaragarritzko mozkinak, etekinak, remanenteak edo saldo positiboak, espero dituzue... edo juxtu-juxtu ailegatu zarete zuen agintaldiaren bukaerara gauzak hala moduz disimulatzeko aukerarekin. Zeren, orain, gaur, aurkezten diguzuen likidazio honetan oraindik ere 500.000 € positiboko remanenteak aurkezteko gaitasuna daukazue, baina... hemendik hilabete t´erdira dagoeneko miloi eurotako zuloak besterik ez dituzue edukiko. Eta hori da zuen gestio ekonomikoaren emaitza, horixe da.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Todo está... bueno... vamos suficientemente debatido el tema, podemos estar de acuerdo ó no con el resultado final, pero el resultado final es éste, al final, pues valga la redundancia, no?

Si hubieran cambiado algunas cosas desde el principio, pues quizás este resultado no sería éste, sería otro, podríamos contar con un remanente que nos diera más posibilidades de cara al 2012, bueno... 2011 mejor dicho, porque todavía estamos en él y tenemos verdaderas... o vamos a tener dificultades para poder tener disponibilidad económica a lo largo de este año, por lo menos, no vamos a andar nada bien.

Entonces, como es una discusión ya muy... muy vieja y muy traída, pues yo creo que no merece la pena ya entrar a debatir más, sino que esperemos que a partir del día 22 pues esté quien esté en el Ayuntamiento, tenga otras formas de gobernanza en el sentido por lo menos de... un mayor logro de consensos y una mayor certificación de todos los temas, para que entre todos pues vuelva a recuperar Zumaia el crédito ó por lo menos el remanente que tenía para disponer de aquellas necesidades de inversión que sean necesarias ó cualquier otro tipo de necesidad que pueda surgir a lo largo del nuevo mandato, lo demás no tengo más que decir

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aralar-Alternatiba,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Gauzatxo bat, bakarrik,

Behin eta berriz esaten ari garela Zumaia Lantzeneko estrukturarik ez dugula beharrik udaletxeak, besterik gabe

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Pili,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Nik gauza bat esateko, azkenean lau urte eta gero, Udaletxea gelditu dela pues... dirurik gabe, ezertarako gabe eta atzera begiratu eta esaten duzu, bueno... zenbat... hainbeste diru zegoela, zertan gastatu da hainbeste diru?

Eta ez dut ikusten garbi, non gastatu den, bakarrik hainbat gastu egin direla behar ez zirenak eta erabaki ba... konsensorik gabeko erabakiarekin eta pixkanaka-pixkanaka gehitu, gehitu, gehitu eta azkenean egin dira inbertsio batzuk alferrikakoak, hortan joan da diru pila bat,

Que si.... estudioak direla,

Que si.... jardin... ez dakit zer... bueno

Orduan geratzen gara batere dirurik gabe eta atzetik datorrenak ba... ez dakit ondo eskuak lotuta dituela ba... zerbait egitea nahi baldin badu. Eta derrigorrez inbertitu nahi baldin badu zerbait egiteko ba... zorpetu egin beharko dela eta bueno... nik ez dut zalantza ipintzen kontuak oso ondo daudela, hori... egia da, baina bueno... zuen ba... gestio modelo ba... uste dut porrota egin duela,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Joseba

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Ez dakit zer esan behar nuen...

M. Eugeniak esan du guztiok gaitasuna daukagula 500.000 €tako remanente hau aurkezteko, ez dakit, horrekin zalantzan jartzen duzun kontuak, zelan dauden... porque hau kontuhartzaileak sinatzen du, ez dakit, horrekin zalantzan jarri nahi duzun hori, edo zer... baina kontuak ondo egin da daude eta gaitasuna baldin badaukagu remanentea aurkezteko garai hauetan oso gutxik aurkeztu dute remanentea, zer edo zergatik izango da.

Ze... ia ez dakit askotan, jartzen duzu zalantzan informe guztiak, lehen ere Zumaia Lantzenera bueltatuz esan duzu gezurretazko kontabilitatea, hitz hori erabili duzu, behin baino gehiagotan eta auditatu gabe, oso grabeak iruditzen zaizkit biak, bai bat eta bai bestea, zeren, audituta daude eta ez dira gezurretazkoak, hori zuk esan duzu eta

Askotan esaten denean ez dakigula zertan gastatu den, Pili, lehen esan dut, bi urte hauetan inbertsioetan zortzi miloi, inbertsioetan eh? ez naiz gastu arruntean esaten eh? estudioetan edo ez dakit zertan, ez Zapateronak bi dira, bi miloi, beste sei hor daude.

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Potoloenak Zapaterok egin ditu

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Bi miloi!, esaten dizut, bi miloi. Bi miloi, zortzitik Beste zerbait neukan buruan esateko baina joan zait, ez dakit, Ah! Esan duzun hori guztia kontuena eta iritsi garela juxtu-juxtu e.a. horren esplikazioa badakizu non dagoen ez? Zergatik dagoen hori horrela, kontu hauek zergatik dauden horrela, Zumaia Lantzenetik eta Zumaia Lantzen dauden plan guztiak, hain zuzen ere, zuek egindakoak dira, Plan 2005-2015 deitutako Plan hori. Odietatik hasi, defizitarioa dena hasiera hasieratik, etxebizitza guztiak salduta ere defizitarioa da, o sea que, ez badira saltzen imajinatu! Eta Puntaneta ere defizitarioa da horrelako martxan jarraituko du defizitarioa izaten beste gauza batzuk sortu direlako, baina argi dagoena da hori sortu dela Zumaia Lantzenek dirua behar duelako eta Udaletxeak eman diolako diru hori, Zumaia Lantzenek edukiko balu bere barnean Planak sartuta behar diren modukoak, hau da, defizitarioak ez direnak eta Udaletxeari ez balio dirua eskatuko, Udaletxe hau orain egongo litzake –como Dios- esaten den bezala, eh? ez dago gaizki, egongo litzake -como Dios- eta hor dago koxka Zumaia Lantzenen. Arazo guztiak horrek sortu ditu legealdi osoan arazoak sortu duen bakarra da Zumaia Lantzen, argi eta garbi esan da.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno, bukatzeko... erantzuteko azken txanda bat, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): “Como dios” egongo omen zen udaletxea..., “como dios” zegoen udaletxea 2007an. Esan duzu zortzi miloi inbertsioetan gastatu duzuela lau urtetan...

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Bi urtetan, Bi

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bi urtetan, beno... Lehenago sei miloi esan duzu bi urtetan, orain zortzi al dira bi urtetan?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA):
Esan dut zortzi eta horietatik bi Zapaterok emandako diruakin eta beste sei gurearekin.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): 2007ko likidazioan zortzi miloi remanente zeneukaten, zortzi miloi remanente inbertsioetarako, lau urtetan.

Egia da kontutan izanda 2007an ez zela ezer inbertitu, alegia, 2007a pasata zegoela, 2008an izan zenuten inbertsio exekuzio maila oso, oso baxua izan zela, ba... urte t´erdian zeneukaten 2007ko likidaziotik “como dios” zegoen likidazio hartatik 8.000.000 euro ia-ia inbertsioetan gastatzeko, 7.800.000, 7.800.000.

Zumaia Lantzen alde batera utzita, Zumaia Lantzenekin egin duzuen hasieratik salatu izan dugu da... ez zenekiten..., jokutzen ez zenekiten joko batean sartu zineten, ez? ezta sartu ere ez zinaten egin.:

Laga zenuten hantxe, pare bat urtetan, stand by..., ez dakit, ontzen edo... barbetxoan, horrelako zerbaitean. Gauzak bere kabuz desagertuko ote zirelakoan, edo bere kabuz konponduko zirelakoan... Eta ez gauza bat, ez bestea, baizik eta okertu. Lau urtetako gestioaren bukaeran norberak nahikoa, ez dakit, -“pundonor” esaten zaio-, euskaraz ez dakit nola esaten zaion, eduki beharko luke, eh? Egin duenaren eta egin ez duenaren ondorioak, erreibindikatzeko. Eta erantzukizun “historikoak” ere bere kaduzitate epea edukitzen dutenaren konsziente izan... Ez baldin bazen zuen gustukoa, Bankoari Odietakoa egiteko kreditua eskatu aurretik bertan behera uztea zeneukaten... edo ibili zinaten bezala jira-bueltak egiten ba... beste bide bat bilatu, beste formula bat topatu, aldatu planteamendua... makina bat gauza egin.

Ez duena balio da, laga, utzi, egin, jarraitu, gaizki jarraitu eta handik lau urtetara esan “ah! baina kulpak, zuenak eh? Kulpak, gaizki irten zaizkigunak, zuenak”. Orain: 2007ko likidazioan zeuden 7.800.000 eurotako remanenteen “kulpak”... zuenak ez, ezta? Alegia, gureak ez, ezta?

Mesedez, pixkat serioak izan gaitzke, pixkat serioak, altura hauetan lau urte eta gero...; lau urte zuen bizitzan ez dakit gutxi diren, neurean behintzat asko izaten dira, asko, eta... ba... ya le vale,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Beste bateren batek, zerbait esateko, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, ez dakit, aitortu den horietako operazioa ez dela ondo planteatu, hasiera hasieratik edo horrelako zerbait aditu dut nik behintzat, baina badirudi, udaletxe batek ondo egoteko remanenteak behar dituela eduki eta hori ona dela eta aldiz, zorpetuta egotea txarra dela, eta ez inondik inora, udaletxe batek egin behar duena da bere Herriak behar dituen zerbitzuak eta bere Herritarrei eman behar zaizkion zerbitzu horiek bermatzeko ba... beharrezkoak diren aurrekontuak onartu.

Udaletxe batzuk zorpetze maila bat edukiko dute, beste batzuk beste zorpetze maila bat baina gure ustetan erakunde publikoak ez daude remanenteak akumulatzeko eta irabaziak akumulatzeko, baizik eta Herritarrei ahal den neurrian ahalik eta zerbitzu onenak emateko, badago eta zer meioratua eta iruditzen zaigu lau urte hauetan ere majo meioratu dela oraindik meioratzeko aukera haundia baldin badago ere, beraz, nik uste dut desmitifikatu egin behar dela remanentearen onura edo irudi egokia, niretzako politikoki remanentea edukitzea kritikagarria izan daiteke, baita ere zerren gainean sortzen diren kontuan edukita, zeren, gu etorri garenean ona inbertsio potenteak egin behar izan ditugu Gizarte Zerbitzuetan adibidez, eta beste eremu batzutan eta aldibidez zorpetzeari beldurra galdu beharko zaio.

Gipuzkoako Udaletxe bakarra Zumaiako Udala da zorpetu gabe dagoena, egia da, zorpetu beharko da, beste guztiak ere zorpetuta daude, aspalditik, eta batzuek ondo zorpetuta ere, ba... egia da, Zumaiako Udala zorpetuko da eta ez da ezer gertatzen, ez da ezer gertatzen, ondo funtzionatzearen ispilua ez da remanentea edukitzea eta gaizki funtzionamenduaren ispilua ez da zorpetuta egotea, beraz, ba... remanentearen gora-behera eta horrenbeste mitokin bukatzen joan beharko garela eta hurrengo legealdian bai! Zorpetuko da Zumaia bakarrik falta zen

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, gogoratu nahiko nuke, de todas formas, Odietari dagokionez, gu iritsi ginenerako eskuak lotuta genituela, jabekide pribatu bakoitzarekin iritsi ginenerako hitzarmen batzuk eginak eta sinatuak zeudelako eta beste zerbait egite horrek, suposatzen zuelako ba... ehundoko desenboltsua indemnizazioetan, beraz, gu etorri ginenerako gauzak eginak zeuden, Eta beste inork hitz egin nahi ez duenez, ba... berri eman dugu eta listo, ez da bozkatzen.

Bueno Hirugarren puntua HIRIGINTZA.

HIRIGINTZAREN aurrenengo puntua 07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELAK ESKUALDATZEKO ETA 02 HA-

PUNTANOETAN ESTALITAKO FRONTOIA ERAIKITZEKO KONTRATAZIO MAHAIK EGINDAKO PROPOSAMENA ONARTZEA BIDEZKO BALDIN BADA.

Andoni, Hirigintza batzordeburu bezala,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, azkenean, mahai gainean daukagu kontratazio mahaiak egindako proposamena, eta proposamen hau eduki baldin badaukagu da, joan den otsailaren 10ean pleno honek pleguak onartu zituelako, 9 aldeko bozkekin eta 4 abstentzioekin.

Baldintza plegu horiek ondoren, jendaurrean jarri ziren 20 egunez eta alegaziorik ezean, Foru Aldundiaren aldeko txostena eduki zuten, publikatu ziren eta 30 eguneko epea eman zitzaien ba... partehartzeko, hala iruditzen zitzaien ba... konstruktore, promotore guztiei.

Epea apirilaren 28an bukatzen zen eta apirilaren 28an eskaintza bakarra jaso zuen Udaletxe honek, eskaintza hori mahai teknikoak baloratu eta egokitzat eskaintza ona dela esan digute gure teknikariek, Udaletxeko teknikariek eta baldintza guztiak betetzen dituela adierazi digute.

Eskaintza horrek ahalbidetuko duena da 4.238.000 €tako Frontoira egikaritzea B.E.Z.-a barne, noski, eta 18 hilabetetako epean egitea ahalbidetuko du. Etxebizitzak ere egitea etorriko da, esleipen honen eskutik baina etxebizitzak beti ere Frontoia atzetik joango da. Frontoia beti erritmo aurreratuago batean joan beharko da. Frontoia egiten hasi beharko da eta exekuzio maila beti kontrolatu bat egongo da bai Frontoia eta Etxebizitzena eta Frontoia lehenagotik joan beharko da.

Frontoia egiteazgain Ardantzabiden ere 38 etxebizitza egiteko esleipena emango da horietatik 32 tasatu municipal izango dira, 6 Babes Ofizialeko, guztira 38 nioen bezala ea batz beste etxebizitza hauek 90 metro karratu izango dituzte gutxi gora behera. Hiru logelakoak ia guztiak, bat laukoa eta beste bat bi logelatakoa, etxebizitza ba... adaptatua edo izango dena eta tasatuen salneurria indizea 1,55a izango da. Honek esan nahi du ba... 90 metro karratutako etxebizitza hiru, lau logela, garage eta trasteroarekin BEZ-a ere kontuan edukita, BEZ-a ere sartuta 270.000 €-ko etxebizitzak tasatuak aterako direla Ardantzabiden, eta gure ustetan ba... salneurri egokia, ona, azken finean, etxebizitza tasatuak, librea eta babes ofizialekoen artean kokatu beharreko etxebizitza bat denez, iruditzen zaigu hori lortu dela, Ardantzabiden salneurri honetan horrelako etxebizitza bat ba... ez dugu ikusi orain artean eta ez genuke ikusiko segurazki horrelako promozio baten bitartez izango ez balitz.

Maiatzaren 10eko Hirigintza batzordean egindako balorazioa mahai gainean jarri zen eta bertan aho batez onartu zen irizpena eta irizpen horren ondotik gaur hona plenora ekartzen dugu mahai teknikoak egiten duen

proposamena, Sukia enpresari eskaintza egin duen enpresari ba... ondorengo tramiteak aurrera atera ditzan edo jarrai ditzan eskaera egiteko, relazioa onartuko dugu, lehendabiziko geratuko litzateke Sukia, berak egin du eskaintza eta eskaintza egokia da eta ondorengo urratsak izango liratezke Sukia berak dokumentazio administratiboa entregatzea, abalak entregatzea eta ondoren behin tramite burokratiko hori edo kontratazio guztietan egin behar dena gainditzen denean jada, plenoak Idazkaritzako txostenak hala badio behintzat Sukiari ba... ia, Sukiarekin kontratua sinatzeko ba... Alkateari ba... ahalbidetu edo beharko lioke.

Beraz, gaur hartuko dugun erabakiarekin jada Frontoiaren tanto luze honi, ba... bukaera ematen joango gintzaizkioke eta asapliditik gure balkoietan egiten diguten galderari erantzuteko moduan egongo ginateke.

Lehen nioen bezala eskaintza bat badaukagu, ondo baloratua izan da, pleno honek onartutako baldintzak... pleguetako baldintza guztiak betetzen ditu eta gaur hemen horrela erabakitzen badugu behintzat ba... edukiko dugu esleipenduna eta Frontoiaren plazoak pixkanaka betetzen joango dira, besterik gabe

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bateren batek zer edo zer akklaratzeko? M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, akklaratzeko, hain zuzen, gutxi gora behera esplikatuz duzue kontua, baina nik galdera zehaztu egingo nizuke eta nahiko nukeena da galderaren erantzuna ere ahal bada gehiago zehaztea, noizko? Noizko da? Balkoietan zintzilik ikusten dugun galdera, eta orain egiten dena esleipena edo... bideratu aurretiazko... ez dakit oso ondo tramitazioa nola doan, baina honen ondoren, zein izango dira bete beharreko tramiteak? zein epetan beteko dira tramite horiek, abalak, aipatu dituzun abalak zein abal dira eta behin tramitazioa bukatu eta gero esan duzun frontoiak hasi beharko duela eraikitzen etxebizitzak beraiek baino lehenago... Ze epe konkretutan ari zarete aurreikusten posible izango dela frontoia eraikitzen, frontoiaren obrak ikustea?

Eta bueno, bide batez, bide batez, aipatu duzue baita oker ez baldin banago etxebizitza tasatuak 1,55 indizean, ez dakit, ondo kopiatu dudana 260 bat mila eurotako prezioa... 270, izango dutela, ondo, kontua da hemen bidali diguzuen irizpidean agertzen den balorazioen arabera – precio de licitación- 3.600.000 €tako delako frontoia, BEZ-a kontutan hartu gabe, zeren BEZ-a Udalaren betebeharrak gelditzen da.

Baina, klaro, egiten baduzu 3.600.000 €tako aurrekontua zati 38 etxebizitza, horietatik 32 tasatuak, aipatutako prezio eta indizetan, eta 6 VPO Ardantzabidetik lekuz aldatutakoak, ba... ez dakit, ondo egin ditudan

kontuak baina ateratzen zait frontoiaren karga bakarrik, etxe bakoitzeko 95 bat mila eurotako inputazioa.

Hortaz aparte eraikuntza bera egin behar denez eta eremu horri dagozkion urbanizazio kargak ere badaudenez, bueno... ba... ez dakit, zenbakiak nahiko estuak dirudite, nahiko estuak dirudite. Eta gero esplikatu duzu nola izango den esleipen behin betiko prozedura eta zer nolako berme eta abalak ekarri beharko dituzten baina nik aurretiaz nahiko nukeena da eskatu ba... gauzak lotzen dihoazen bezala, eta tramitazioak betetzen, ez dakit, legeak edo prozedurak ze... marjina usten duen horretarako, baina nolabait ondo lotzeko, ondo lotzeko, ze... ni ez naiz oso aditua baina sumatzen diren gauzen arabera etxebizitza libreen promozioak, hau baino etxeko inputazio ekonomiko ez askoz handiagoekin bertan behera erori dira bat baino gehiago, orduan hau dena nola dago?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno saiatuko naiz erantzuten,

Dena den joan den asteartean, Hirigintza batzordea egin genuen eta astelehenean ere Arkitekto Jaunari ere egin nahi izan zenizkion galderak guztiak egiteko aukera eduki zenuen eta nik behintzat ahal dudan heinean erantzungo dizut, baina noski Arkitektoa, bera baina dexente okerrago, baina bueno... hala ere saiatuko gara, Bermeak dira....

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Hari galdera batzuk egiteko aukera izan nuen konfundituta etorri nintzelako, ahal izan nuela, astelehen goizean hirigintza batzordea egongo zelakoan, ez zegoen. Asteartean zen eta ezin nuen etorri asteartean.

Baina, dena den arkitektoarekin egon nintzenean, artean nik ez neukan datu hauen berri, gero pasa zizkidaten juxtu gero,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai

Dena den, bermeak, aurkeztu beharreko bermeak dira Frontoiaren exekuzio materialaren % 5a. Hori da aurkeztu behar duten bermea. Eta exekuzio materiala 3.178.000 € dira. 3. 178.000 € hori gastu orokorrak gehitzen baldin badizkiogu %13a. Hori ia 3.600.000 € inguru dira eta zuk jakin dakizun bezala gauza bat da lizitazio prezioa zein den, baina beste kontu bat da ondoren obra publiko hori esleitzera ateratzen duzunean egiten dizkizuten eskaintzak eta Sukiaren arazoa izango da ze prezioetan egiten duen Frontoi hori, guk Frontoia definituta daukagu, daukagu proiektu tekniko bat esaten diguna ze... Frontoi ze... karakteristikekin eta bertan dago exekuzio material koste bat ba... proiektu guztietan bezala

adierazten duena Frontoi hori kostatuko dela merkatuko prezioen arabera 3. 200.00 € gero habilitatea libre batzuk igual 3.000.000tan egitekotan aukera edukiko dute, eta beste batzuk 3.100.000 eta beste batzuk 2.800.000 €tan. Orduan koste definitiboa zein izango den, hori promozio lanak promotoreak nola eraikitzen duenaren arabera, nola optimizatzen duen operazioa ia... bere arazoa izango da ba...95.000 € edo 70.000 € edo direnak direlakoak izango dira erreperkusioa.

Gaur ba... bueno... galdera batzuk egin egiten dituzu eta ni berriz ere erantzuten saiatzen naiz, baina gaur ez da lehendabiziko eguna operazio honen inguruan galderak eta afirmazio ba... desberdinak egin izan dituzula eta beti ere operazio honen inguruko zalantzak sortzeko borondate intentzioarekin, gero eta gutxiago ikusten zenuela, gero eta, ba... ez dakit, konplikatuagoa ezin ulertu bezala eta bueno... aurreko plenoan adibidez komentatu zenuen urbanizazio kargak orain Udalak jan beharko dituela, lehen ez dakit, hitzarmen batean zuk egiten zenuen interpretazioaren arabera, behintzat, beste norbaitek ordaindu behar bazuen ere eta baita ere komentatu zenuen BEZ-a orain Udalak jan beharko zuela, lehen hitzarmen hortan lotuta baldin bazegoen ere, eta bueno... bertan nik erantzun nizun hori horrela ez zela, hitzarmen hori ondo irakurtzeko faborez, eta pleno hontara horrelako gauzak esatera etorri aurretik, behintzat, ba... Alkateohia izan da eta Legebiltzarkidea izan da ba...bueno... gauzak nahiko serio ari dira eta zalantza, zalantzaren gainean sortu beharrean ba... bueno informazio egokixeagorekin etortzeko ba... beharra uste dut badagoela, nik hori entzun da txostenak eskatu ditut bai Arkitektoari eta bai Kontuhartzaileari, hitzarmen hortan zer esaten duen eta zer ez argitzeko eta txosnen horiek dioten arabera inongo momentuan ez urbanizazioak eta ez IVA-k ez zituen soportatu behar Zumaiako udaletxea ez zen beste inork, eta gaur ere ba... berriz ere zenbakien inguruko... zenbakiak hemendik aurrera ez dira gureak, zenbakiak beste batzuk egin dituzte eta proposamena egin dute eta biabilitate ekonomikoa beroiek borrokatu beharko dute, beroien finantziazio gaitasunaren arabera, abilitatea baldin badute Frontoia 2.700.000€tan egingo dute edo 2.600.000 €tan, ez dakit, gaur egun denok dakigu horrelako obra publikoetan jaitsiera haundiak daudela, oso haundiak daude, baina guk lortu nahi izan duguna da ahalik eta etxebizitza babestuenak egitea eta ahalik eta Frontoi egokiena egitea eta hortarako sinergiak martxan jarri nahi izan ditugu, obra publiko baten esleipenak sortu litzazkeen hobekuntza lizitazioan nahi genuen etxebizitzaren presiona ere igertzea eta aldi berean etxebizitzak egiteak emango zuen finantziazio aukera horrek ere ba.. Frontoia egiten erabiltzea, orduan iruditzen zaigu, guk egin beharreko zenbaki guztiak egin ditugula, Sukiari ateratzen zazikiola zenbakiak eta guk hemendik aurrera hau esleitzen dugunean Sukiari plazoak betearazten nahiko lan egingo dugula eta zenbakiak egiteari ba... ia utzi beharko dugula, beraz, ba.. zorionez nahiz eta zalantza asko egon diren pleno hontan, eskaintza on bat berriz ere

diot badaukagu eskuartean eta eskaintza horri orain ba... azkenengo bultzada politikoa eman eta hemendik aurrera zenbakiak ez, hilabeteak kontatzen hasi beharko gara eta Frontoia ea ba... 18 hilabete barru ez, baina 22, 23 hilabete barru ea martxan ikusteko aukera daukagun gaur hemen hartzen dugun erabakiaren arabera,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Azken txanda bat, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bueno, aber.. nik esandakoak..., esangabekoak..., nire ez dakit nolakoak..., nire -curriculum vitae- ere azaldu diguzu, oso presente daukazu nonbait, oso ondo, nik bakarrik esan dizudana da... eta habilitadea libre, noski, Sukiak egin baldin badezake kostuaren erdian ba... hori aurreratuko du bere praktikara. Baina hemen, hemen txosten honetan, ez da nik esandako ezer, ez da agertzen den prezioen arabera etxeko, etxeko 96.000, 95.000 €tako inputazioa agertzen da, kontutuan hartuta 6 VPO direla eta horiei ezinezkoa izango dela ezer gehiago sartzea, urbanizazio kostutik haratago ba... hala ere gehitxo iruditzen zait, Bale? Sukiaren arazoa dela? Perfekto.

Esan duzuna da hemendik 23 hilabetetara ea posible dugun Frontoia ikustea. Bale!

Ikusita hirigintza batzordetara etortzeko benetan zailtasunak ditugula, badakit, deialdia bidaltzen duzuela, badakit... zein da juxtu prozedura?

Momentu honetan zer da erabakitzen duguna? Eta horren ondorioz zein izango dira Sukiak bere gain hartzen dituen betebeharrak, obligazioak udalarekiko? Eta zein, aldiz, kontrapartidan udalak hartzen dituenak?

Eta epeak nola izango dira behin betiko esleipenerarte eta momentu horretatik aurrera, nola dago pleguetan?, ez naiz akordatzen seguru zuk hori badaukazula buruan nola dago pleguetan epeen kontua,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, orain hemen hartuko dugun erabakia da mahai teknikoak egin duen balorazioa onartzea eta balorazio horren baitan eskaintzen relazioa edo ordena onartuko dugu, eskaintza bakarra daukagu, beraz, hartuko dugun erabakia da Sukia lehendabiziko postuan geratzen dela. Erabaki hau plenoan hartu behar da kontratatatu behar dugun lanen kopuruaren tamainagatik, nola lanak horren ba... hiru miloi euro luze direnez, ba... aurrekontu... ohiko aurrekontu propioen %5a edo 10a baino gehiago delako kontratazio organoa plenoa da. Orduan, guk behin relazio hori onartzen dugunean Sukiak egin beharko

duena da Seguritate Sozialarekin ehunean dagoela aitortzen duen dokumentazioa ekarri, % 5eko abala ekarri eta beste dokumentazio administratibo bat beste edozein kontratutan eskatzen zaiona edozein ba... esleitzailerari hori berdin berdin izango da.

Hori entregatuta dagoenean eta uste dut gutxienez hamar eguneko epea eman behar zaiela Idazkaritzatik txostena egin beharko da, entregatu beharreko dokumentazioa eta abal guztiak entregatuta daudela eta behin hori horrela denean berriro plenora ekarri beharko litzateke, orduan Alkateari kontratua sinatzeko baimena emateko idazkaritzako txosten horrekin.

Orduan gaur Sukiari, dokumentazio administratibo guzti hori eskatuko diogu eta Sukiak behin entregatzen duenean kontratua sinatzeko eskumena emango zaio Alkateari, orduan prozedura hori izango litzateke.

Guk aurreikusten dugunaren arabera denok dakigun bezala hauteskundeak erdian ditugu, orduan hurrengo gorpuzazioak edo uztaileko, nik uste dut, ia... martxan egoteko aukera daukala, dena azkar joan da uztailearen bukaerarako agian kontratu hori sinatu daiteke, denok dakigun bezala abuztua eta habila, orduan irail bukaeran, urrian lanak hasteko moduan egon daitezke eta hortik aurrera ia... behin sinatzen denean hilabeteko epea dago lanak hasteko kontratu guztietan bezala eta behin sinatu eta hilabetera, 18 hilabetetako epea kontatzen hasten da. Orduan urriatik 18 hilabeteera Frontoia bukatuko litzateke. Horrek esan nahi du urria, azaroa, abendua, 15 hilabete gehiago beharko genituzkeela, ba... Maiatza, 2013ko Maiatza buelta hortan dena ondo bidean, Frontoia bukatzen edo bukatuta egongo litzatekeela,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno, ba... oso ondo

Ba... besterik gabe, bozkatzera pasako gara, eh?

Lehen galdetu dut eta ez du inork ezer esan, ba... Emiliano eta beste bateren batek nahi du Emilianotik aparte? Galdetu? Galderak? Eta Pili, Emiliano eta Pili, venga... eta gero Andoni

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): He entendido que como estaban preguntando y contestándose estaba esperando a que acabaran, lógicamente, me parecía lógico no entrar en medio, no?

No es por nada, yo no tengo así ahora mismo ni datos ni posibilidades de determinar cual va a ser el resultado final de todo esto. Ahora me chocaron el otro día un par de cosas y las comento no?

Un tema como este en la situación en la que nos encontramos con una cantidad importante de inversión como es el Frontón que sólo haya aparecido una empresa, es un poco chocante, no estoy con ésto queriendo sacar ninguna cosa de quicio, simplemente que me parece un poco

chocante que una sola empresa estando con la necesidad de trabajo que tienen la mayoría de las empresas y hay cientos, por no decir miles, que están esperando cualquier cosita que salga para cogerlo al vuelo, que una contratación interesante como ésta, solo haya aparecido una empresa.

Eso y mirando las cifras como salen, pues hombre por lo menos, por lo menos, pienso que este pleno ó el que surja próximo tendrá que tener un seguimiento bastante importante de ésto, porque luego las bajadas se pueden cambiar en aumentos, en desvíos presupuestarios y demás que al final el contrato pues no sea el que se firma, sino que se desvirtúe mucho con tal de que se acabe el Frontón y éso pues logicamente a mí personalmente después de cuatro años u ocho años de cómo está el Frontón me fastidiaría bastante, no? Digo, no estoy echando la culpa a nadie, ni nada porque no puedo echar la culpa a nadie de algo que no sé si siquiera vá a ocurrir, no lo tomeis en ese sentido, pero sí que me choca un poco toda esta circunstancia de lo que ha ocurrido, porque ya digo... haciendo números salen tan justos, tan justos quizás haya sido lo que ha metido miedo a otras empresas?, no lo sé, pero podía haber hecho una bajada inferior, no sé, algo... algo... puedes estar pensando aunque, aunque no tenga por qué ocurrir nada pero que las cosas pueden salir muy bien, pero te dá pié a que haya que tener un seguimiento muy específico de todo ésto para no tener algún tipo de disgusto con la ejecución del Frontón una vez que se terminen todos los plazos y demás, espero que no! y confío en que no! pero un poco de cuidado habrá que tener,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Pili,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Ba... nik ildo beretik.

Hasiera-hasieratik iruditu zitzaidan Sukia bakarrik aurkeztea ba... nahiko susmagarria eta gainera jakin da bueno... pues nik aspaldian salatu nuen kasu bat mahai gainean ipini nuena, juxtu enpresa honekin zela.

Orduan guri presentatu zitzaigun orain dela ez dakit zenbat hilabete, hirigintza batzordean esanaz ba... hau caramelo bat izango zela konstruktore batentzat, zergatik lagatzen diogu terreno bat kargatik libre, gainera ematen diogu proiektua egin da, gaineratik etxeak izango ziren... etxebizitzak izango dira tasatuak, erraz saltzeko modukoak, lista batetik tirako zenez, e.a. orduan caramelo hori beste inork ez ikustea hala dela, ba... susmagarria da gutxienez, nik ez dut esaten atzetik tranpa dagoenik edo ez dagoenik, ez daukat daturik, baina bueno... hori susmagarria

Eta gero, beti esaten da ba... mahai kontratazioak izaten direla gardenak, ez dakit zer... nik gardentasuna ikusten dut mahai kontratazio hortan aukera edukiko bagenu zinegotzi guztiok edo behintzat ez Gobernuak bakarrik, ba... sobreak irekitzen diren garaian, denok egongo baginake eta ez teknikariak edo Gobernuak esaten duen horiek bakarrik.

Frontoiari dagokionez, ba... proiektua aldatu zen askozaz ere hobeto ikusten nuen lehenago zegoen Frontoia, baina esan zenuten oso garestia zela, ez zegoela dirurik ez dakit zer... azkenean diru pilo bat gastatu da proiektua aldatzen, azkenean badago bat eta irtenbidea ematearren bota nuen nire botua izan zen aldekoa, irtenbidea ematearren, baina ez da gutxio nire eritzirako edo Zumaiak behar duen Frontoia, da Frontoi bat, baina ez Zumaiak gaur egun behar duena. Horixe, bukatu egin behar duela gai honek ia... badela garaia, lau urteetan eta gehiago gaude Frontoirik gabe, egoera oso kaxkarra da, bai kirola egiten duten guztientzat eta bai Klubentzat, orduan ba... bueno ba... besterik ez dagoenez, honek izan beharko du baina behintzat ez du nire satisfakzio maila betetzen,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, egia izan, hasiera batean ez nuen pentsatzen esan diren gauza guztiak erantzutea, baina ez dakit, edozer gauza esateko gaitasuna gero eta urrutiago eramaten duten pertsoneri, azkenean erantzun gabe ezin zaio utzi.

Edozer gauza, edozein momentuan, edozeinerara eta zertan ari diren inongo arrastorik gabe.

Gobernua bakarrik dago kontratazio mahaian eta guri ere gustatuko litzaiguke egotea, eta ez Gobernuak erabakitzea ondoren teknikariek zer idatzi behar duten, horrelako zerbait entzun diot, bai Pilar bai! Eta orain nik ari naiz hitz egiten.

Legeak esaten duena ere ez dakizu Pilar, ez dakizu inondik inora, ez hemen eta ez beste inon. Legeak espreski zinegotziak kontratazio mahai hontatik kanpo uzten gaituzte. Kontratazio mahai hontan teknikariak bakarrik daude eta teknikariak euren txosten teknikoa egin dute hirigintza batzordeak diktaminatu eta pleno honek berea egin dezan eta nik dakidala behintzat, hirigintza batzorde hartan horrelakorik ez zen esaten, baina ez dakit, kanpainan zaude eta edozer gauza esateko prest, bai Pilar horrelaxe da! Edozer gauza, ez dakizu zertaz ari zaren, no tienes ni idea, eta zuk nahiko zenukeena ba... bueno, zuk bakarrik dakizu baina gu ez gaude zuk nahi duzuna egiteko baizik eta posibleak diren eskaintzak eta aukerak landu eta mahai gainean jartzen, ahalik eta modu serioenean, baina zuk nola hitz egiten duzun ikusita legea ez duzu ezagutzen inondik inora,

kontratazio mahai hortan zeinek hartu duen parte ez dakizu inondik inora, zeren, gutxienez igorri zaizun informazioa irakurri egin izan bazenuen, jakingo zenuke kontratazio mahaiaren teknikariak bakarrik daudela eta ez dagoela inongo politikaririk, baina ez dakit, hemen ematen du ba... ez dakit, beti susmo bat, beti zer edo zer mahai gainean botata, ba... ya esta... tinta bota eta beste ezer esateko gaitasuna ez daukanak ba... horixe... tinta bota, kaka bota, ah! -Yo también me sumo a lo que dice ése, yo también me sumo a lo que dice ése, yo también me sumo a lo que dice aquella, yo también me sumo, estamos todavía sumandonos,- ez daukagulako ba... inongo inizatiba politikorik eta inongo gaitasunik ba... koroak egitetik haratago, baina bueno... diru pilo bat gastatu da Frontoia egokitzen, 56.000 euro gastatu dira, 56.000€ ez dakit, diru asko ala gutxi den baina niri iruditzen zait ez dela dirua egin den lana ordaintzeko zeren, sekulako lana egin da, bai Frontoia egokitu dutenak eta bai lehiaketa hau aurrera joan dadin lan egin duten udaletxe hontako teknikariek ere sekulako lana egin dute, zeren, prestatu diren baldintza pleguak oso, oso, oso konplikatua ziren, zeren egin behar zen lana zen ba... ia-ia cirugia ba... kontua bai zenbakitan, bai pleguak egiterakoan, oso, oso, konplikatua zen eta ez zeuden, ez zeuden referentzi asko eta pleguak hala esan digutelako ba... oso ondo estrukturatuta zeuden eta hori ahalbidetu du udaletxe honek garantia guztiak mantenduta martxan jartzea Frontoia, zeren, zerbait gaizki baldin badoa eta hemen badirudi batzuk zerbait gaizki joateko esperantza dutela, oraindik, zeren, gauzak ondo joatea batzurenentzako txarra da, agoreroz beteta dago pleno hau, ba... zerbait gaizki joango balitz Ardantzabideko partzela inongo kargarik gabe berriz ere udaletxearentzako izango litzateke eta bai Ardantzabideko partzelan eta bai Puntanuetako partzelan egindako inbertsioak udaletxearentzako izango liratezke, Beraz, udalak hemendik aurrera onera bakarrik egingo du, zeren, partzela inongo kargarik gabe recuperatuko luke inkumplimendurik egongo balitz eta inkumplimendu horiek ematen diren momentuan egin da dauden inbertsioak udalarena izatea pasatuko liratezke, momentuan oso ondo dihoa, hala da, eta horrela jarraitzea nahiko nuke baina hemen ere arraroa edo carameluak, hau inongo momentuan ez da caramelo bat eh? guk zalantza geneuzkan inor aurkeztuko ote zen zeren, hemen ez beste udaletxe batzutan Irunen eta Donostialdean horrelako konkurtso batzuk desierto geratu dira, orain ez delako momentu ona eta bakarra aurkeztea aukera bat zen eta hala gertatu da, baina caramelo bat izan balitz, batzuk caramelo hitza erabili dute inon orain arte erabili ez dena baina gaur hemen ba... plenoan dena balio du caramelo hitza ere erabili da, caramelo izango balitz eskaintza bat ez, hamabi eskaintza edukiko genituen, zeren, caramelo gozoki horren bila etorriko zen Sukia, etorriko zen Altuna eta Uría, etorriko zen Amenabar, etorriko zen Lazkano, etorriko ziren ba... bailarako eta Gipuzkoako promotore-konstruktore guztiak, baina hau ez

zen caramelo bat hau zen oso operazio konplikatu bat, zenbakiak oso ondo begiratua zituenak eta marjenak oso, oso juxtuak zituenak eta horregatik eskaintza bakarra daukagu, beste inork ez duelako proposatu baina bat badaukagu, eta bat behar genuen eta bat badaukagu eta azkenean desierto ez da geratuko eta caramelo ez dela erakusten du, ez direla beste hamabi edo hamahiru aurkeztu eta ez baldin bada ere aurkeztu ez da gogo faltagatik, baizik eta gaur egun dagoen likidezia eta gaitasun ekonomiko... zeren, promotore-konstruktoreek ere ba... finantziarioa lortzen arazoak dituzte, horrela ba... konkurtsoa orain dela bi, hiru urte errazagoa aterako zen, baina orain ez zen momentu egokiena, baina zorionez eskaintza on bat daukagu, zorionekoa gu Frontoia badatorrela ikusten ari garela, baina hala ere, badirudi ba... ez dakit, atera behar direla betiko mamuak eta betiko txontxongiloak ba... beste norabaitetara begira jarriko gaituztenak, baina gu gaur begiratu behar dioguna da... ze baldintza plegu onartu genituen? Baldintza plegu horietatik ondorioeztatzen den eskaintza bat daukagula eta eskaintza horri halako batean onarpena ematen diogunean Frontoia gero eta hurbilago egongo dela eta Ardantzabiden Babes Ofizialeko etxebizitzak, eta etxebizitza tasatuak ere hala izango direla eta faborez, gauza batzuk esan aurretik bi aldiz pentsatu, zeren, pleno batean edozer gauza esatera ezin da etorri eta...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno, Pili, labur-labur eh?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bai, laburrean esango dut,

Zu, Andoni, ez zara inor, baina es ke... ez zara inor ni deskalifikatzeko hemen pleno hontan, zuk ez dakizu nik zenbat dakidan, zenbat ez dakidan, ze lege ezagutzen ditudan eta zer ez ditudan ezagutzen, asi que... zeuk... zeu desitxuratu zara hemen denon aurrean ni deskalifikatuz.

Bueno, beste gai bat, nik esan dut mahai kontratazio mahaiian gardentasuna eskatu dut, nik ez dut esan teknikoak eta gaizki egin dutenik, nik esan dut gardentasuna edukitzeko edo izateko zinegotziok, zinegotziok, denok, izan beharko genukeela aukera ba... hor egoteko behintzat, ikusten, ikusten gauzak nola egiten diren, hori da nik esaten dudana gardentasuna, besterik ez, nik ez dut esan hauek mahai kontratazio mahaiak gaizki egin duenik eta gaizki puntuatu duenik baizik eta bakarria dagoelako, eta caramelo hitza zuk esandakoa da orain dela ez dakit zenbat hilabete hasi ginenean ba... pleguak eta lantzen eh? zuk esandakoa da eta gainera bazeuden bat, bi, hiru ez lau, lau eskaintza zetozten, ez dakit zenbat enpresa zetozten hori esatea, eta caramelo hitza zuk erabili zenuen hirigintza batzordean eh? o sea que ez da nik asmatutako hitza, orain bakarria prestatuta dela eta orain dauzka zailtasunak?

Eta orain da krisis ekonomikoa?

Eta orain da enpresa batek lan egin ezina? Orain izango dira, orain dela hilabete batzuk hau caramelo bat zen. Eta basta ya! Ze... kanpainan zu egongo zara

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno ba... besterik gabe, galdera, venga, motza...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Galdera bat, es que... uste dut gaia inportantea dela, es ke, finantziazioa aipatu duzula ia prelazioa egiten denerako, Sukiak ba al dauka bermatuta frontoia, etxebizitzak ez ezik, frontoia egiteko beharko duen finantziazioa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez dakit, baina hori Sukiak erantzun beharko duen galdera bat izango da, eskaintza egin duenerako guri behintzat Sukia iruditzen zaigu badela enpresa nahiko solbente, serio eta potentea eta eskaintza bat egitera sartu denean, gai horiek lotuta edukiko dituela pentsatzen dut, baina... Sukiak hori horrela eginga daukan edo ez, nik pentsatu nahi dut baietz, baina hori Sukiak berak erantzun beharko du eta berak orain udaletxe honekiko egin duen eskaintzarekin konpromiso eta ardura batzuk hartzera doa eta pentsatu nahi dut beste leku askotan bezala hemen ere gauzak ondo egitera etorri dela

MANU ZUBIA ARTABE JNA.(EAJ-PNV): Barkatu Iñaki, Galdera bat, Eta 18 hilabete horietan ez baldin badu Frontoirik egiten, guk bakarrik daukagu abala % 5a jasotzeko edo zerbait gehiago badaukagu?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez dakit, baina benetan eh?...

MANU ZUBIA ARTABE JNA.(EAJ-PNV): Es ke...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez, ez, ez, baina...

MANU ZUBIA ARTABE JNA.(EAJ-PNV): Barkatu, aurreko konbenioan, zuek behin baino gehiagotan... aber.... barkatu... barkatu... aurreko konbenioan zuen zalantza beti izan zen, gu geneukala lotuta –con la ocupación de las viviendas- bueno..... –licencia de primera ocupación- eta abala ez geneukala, bueno... une hontan nire galdera da, ez baldin badu egiten Frontoia Sukiak, gu zer daukagu bakarrik abala? % 5a?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Lur sail bat,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Es ke... guztiz desberdina da, lehengo hitzarmen hura eta orain egitera goazena ez dauka zer ikusirik, orain egitera goazena da obra publiko baten esleipena eta Odietako lanak esleitzen ditugunean eta Jadarreko lanak esleitzen ditugunean eta alondegiko lanak esleitzen ditugunean ba... lan horiek egin behar dituztenei eskatzen dizkiegun abal berdinak eskatzera goaz Sukiakoei orain, obra publiko bat esleitzera goaz eta kasu hontan ez zaio ordainduko kontra (nola esaten da, Gorka) kontra faktura... edo certificado ez! Kasu hontan ba... beroiek en especie ordaindu behar digute partzela bat baina partzela horren ehuneko, ehuneko titularitatea ez da izango Sukiarena inoiz Frontoia entregatzen ez duten bitartean, orduan Frontoiaaren aferaren arazorik egongo balitz entregatzeko, plazotan inkunplimendu justifika ezinak emango balira, kontratu hori eten egin beharko balitz, udalak jasoko lukeena da partzela libre de cargas, partzela hortan egina dagoena gehi Frontoian egina dagoena eta alde hortatik daukagu ehuneko ehuneko abala, gure partzelan eta ehuneko ehuneko abala Frontoian, dena ondo bidean aurrera, erdi bidean arazoak daudela? Erdi bide hortan inbertituta dagoen guztiarekin udalarena bueltatuko da guztia, eta oraindik eta hobeto egongo gara eta akaso Ardantzabideko etxebizitza guztiak Babes Ofizialekoak izaten bukatuko dute baina bueno... espero dezagun dena ondo joatea eta hasi eta bukatu izatea,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Hori da, bueno... ba... besterik gabe, bozkatzera pasako gara PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde, nola ez

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta nik ere noski aldekoa eta zorionez onartutzat ematen da

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: 07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELAK ESKUALDATZEKO ETA 02 HA-PUNTANOETAN ESTALITAKO FRONTOIA ERAIKITZEKO KONTRATAZIO MAHAIK EGINDAKO PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD LA PROPUESTA REALIZADA POR LA MESA DE CONTRATACION PARA LA ADJUDICACION DEL CONTRATO DEL EXPEDIENTE PARA LA ENAJENACION DE LAS PARCELAS 7.1 Y 7.2 DEL AU 07-ARDANTZABIDE Y EJECUCION DE LA OBRA DEL FRONTON CUBIERTO EN EL AU 02-PUNTANOETA .

Eta honekin lotuta, lotuta dihoalako eta horregatik egin dugu aldaketa bigarren puntuan jarrita zegoen **ZUMAIA UDALEKO 2011. URTERAKO 6. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA BIDEZKO BALDIN BADA.**

Izan ere operazio hau aurrera joateko udalak BEZ-ari aurre egin behar diolako eta kreditu aldaketa honen arrazoia ba... hortik datorrelako Josebak ogasun batzordeburu bezala,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA):
Bueno, 6. kreditu aldaketa hau aurreko astean egin genuen diktamena eta bueno kreditu aldaketa hau transferentzien modalitatekoa da, hau da, Gastu batzuk murrizten dira eta kopuru horrekin beste partida bat sortzen da, kasu hontan partida bakarra Frontoiaren IVA-rena

Bere arrazoia, bueno... denok dakigunez oraintxen onartu den puntuan dago, eh? trukatzeko operazioen bidez Zumaiako Frontoi berria exekutatzeko udalak jasan beharko duen BEZ-aren partidari finantzazioa ematea.

Maiatzaren 10ean egin zen diktamena, bueno... aldaketa txiki bat proposatu zuen Pilik hor dauden partida... partida pila bat daude murrizteko eta bueno... aldaketa txiki batzuk egon dira Pilik esan zuenaren aparte beste hiru, orain esango ditut, eh? baina bueno, azken finean da 646.000 eurotan murriztea gastuak eta 646.000 eurotan sortzea IVA-ren partida.

Irizpena denok alde bozkatu genuen, PNV abstenitu egin zen; azken finean gastu arrunta bueno... bide batez honek balio digu baita ere gastu arrunta murrizteko, gastu arrunta murrizten da 356.000 eurotan, inbertsioak beste 290.000 eurotan eta honen helburua da ba... hurrengo hilabetetan edozein Gobernu egon da ere, noski, hau operazio hau gauzatzen denean Ogasun

sailak eskatu daiteke BEZ-a ingresatzea, orduan ba... kreditu aldaketa hau onartzen bada, aurrekontuetan egongo litzake ia aurreikusita eta izango litzake ba... ordaintzea eta punto eskatzen dutenean.

Kreditu aldaketa hau ikusten duzuen ez da ezer remanenteren kontura eta ez da defizitaren kontura, esan dudan bezala gastu pila bat murrizten dira.

Batzordean ikusi zen kreditu aldaketatik daude diferentzi gutxi batzuk, eh? Bat, Pilik esan zuenak –Subvenciones a clubs deportivos- han proposamen zen 7.000 euro eta 900 murriztea eta hori ez da murrizten, kendu egin dugu.

-Utilización de frontones- ere kendu egin dugu 9.000 euro proposatzen zen baina hori partida hori, hain zuzen ere, kirolariak joaten direnean frontoietara bidaietarako erabiltzen da eta azkenean kendu egin dugu, diru hori behar delako hortarako.

Eta gero baita ere Kirol taldeetan beste subentzio baten murriztu dugu beste 25.000 eurotan eta baita ere beste 20.000 eurotan beste dirulaguntza batzuk kulturakoak uste dut direla.

Eta hori guztia dira 62.000 euro, hori, denak kirolekoak dira, kendu ditugun partidak kirolekoak dira, o sea, kendu ez proposatu genuen batzordean hortik murriztea, baina orain hortik ez da murrizten eta horren orde murrizten dira 62.000 euro horiek, 10.000 € -asesoría para comunicacionesen- beste 32.000 € -de recogida domiciliaria de basuras- eta 20.000 € kale garbiketarako.

Hain zuzen ere, lehen esan dugun itxieran balantzean konturatu baldin bazarete, horietan dirua sobratu da, zaborreko eta kale garbiketako gastu arruntean.

Orduan, horiek dira aldaketak, ez dakit, nahi dut esan 646.000€ horietatik 62.000€ko aldaketa dago, baina egin duguna da dirulaguntzak mantendu eta 2.kapitulua murriztu.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, bateren batek zerbait esateko, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bueno, badakit berriz ere, eztabaidan luzatuko garela, lehenago ere Andonik bota dizkit esandakoak eta ez esandakoak, eta BEZ-aren kontua..., bueno... berak dio eta hala izango da, ez dut esaten ezetz, teknikariak egindako txostenak reklamatu dituela non esaten duten ba... bere garaian onartutako arau subsidiarioetan... zuzentzailetan, onartutako konbenioaren arabera ere, IVA berdin-berdin ordaindu beharko zuela udalak.

Interpretazio bat izan daiteke eta nik ez dut esaten ezin daitekeenik izan interpretazio hori. Nik esaten dudana da ez dela gure interpretazioa. Izaera juridikoa ere, berak oraintxe aitortu duen bezala, desberdina da. Momentu

honetan, egin dena da permuta baten bitartez, edo hobeto esanda, obra publiko baten kontratazioa fakturaren ordainketa zertifikazioen kontra joan beharrean diru kopuruak emanaz, ba... lur eremu baten aprobetxamenduaren truke egin. Ados, lehen ez zen horrela.

Lehen zen hitzarmen... hirigintza hitzarmen bat, eta ulertzen zena zen, ba... anbulategia egiteko lurra lortu zuen bezalaxe, udalak bestelakorik gabe, bestelakorik gabe, ba... hau ere, ekipamendu orokor bezala –llave en mano- lortzea.

Orain, esango dit ezetz? Eta nik esango diot ba... ez nagoela ados, bere planteamenduarekin eta horretan jarraitu dezakegu, jarraituko dugu seguruenik frontoia bera egin arte edo askoz beranduago, bale!

Bueno, kontua da, ba... guretzat sorpresa bat izan zen bere egunean 600 eta piko mila euro hauek udalaren gainera erortzen zirela ikustea, dirutza bat deritzogu, egia da, bigarrenko kapituluko partidak murrizteko balio duela, ez dakiguna da gero murrizketa horrek nola... murrizketa horren bitartez nola egin ahal izango zaion hainbeste zerbitzu publikori, garbiketa eta hainbat konturi, lehenago ere oker ez bagaude, 2011 honetan bertan aurrenengo kreditu aldaketak planteatu direnean, hain zuzen, moztu izan dira eta orain berriz ere mozketekin datozte. Edo oso puztuta zeuden partidak aurreko urteetan, eta ez ziren gastatzen, edo gastatzen baziren alferrik gastatzen ziren, edo ez bazen horrela ba... zerbitzuen nondik norakoa ez dakit zenbateraino bermatuko den..., baina hori... en fin hitz egiteko modukoa izanik ba...

Eta txosten teknikoak egon arren, guk jarraitzen dugu mantentzen hitzarmenaren BEZ-ari buruzko interpretazioa, baina bueno... Ea aprobetxatzen dut hemen aipatzen dela... azkenengo lau hilabetetan edo lau plenotan egin dudan eskaerak erantzunik ez du izan... gure autobus urbanoaren nondik norakoa zertan den ere ez dugu jakin, lehengoan egia da arkitekto jaunarekin hitz egiteko aukera izan nuela eta baita galdera ere zuzenean berari egiteko eta ez zidan erantzuten jakin, Alkateak ez daki, Alkateordekoak ez daki, beste gainontzeko zinegotziek ere ez, Arkitekto buruak ez daki... Ikusten dudanez 30.000 €ko kostua aurreikusita zegoen eta orain murrizketarekin 20.000tan geratzen zaigu, bueno... gutxienez hau izango da 2011erako aurreikusitako kostua autobusarena, ba... aprobetxatzen dut berriz ere -lagako didazue tartea erabiltzen- autobusa ba den, ez den, zertan den, noiz ibiltzen den eta zenbat jende dabilen galdetzeko, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste bateren batek,
Ez, ez baldin baduzue nahi, ez eh? Lasai,
Ezerrez,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, bai...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Benga, Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bueno... ez dakit, tematu gintezke IVA-ren aferarekin baina egia esan niri ere batere oso antzua iruditzen zait, kontu batzuk politikoak izan daitezke eta nola egin behar diren eztabaidatu genitzazke eta beste batzuk aldiz teknikoak dira guztiz eta IVA hori, nork eta nola eta noiz ordaindu behar den ez dut ezarri, ez nik eta ez zuk, horretarako kontuhartzailea dago bere betebeharra hori da, bere lana hori da, ze... reperkuzio fiskal eta zer ondorio fiskal dituzten operazioei aurreikusi eta programatzeko eta espreski eskatu nion txostena eta hementxe aurrean daukat, eta bai kasu hontan eta bai beste edozein kasuetan, IVA soportatzen duena eta IVA ordaindu behar duena da kontsumidore finalak. Eta kontsumidore finala kasu honetan udaletxea da, eta norbaitek soportatu behar baldin badu IVA hori, lehen eta orain eta ez dut nik esaten eh? kontuhartzaileak esaten du udala izango da.

Orduan prudentzia printzipio bati jarraiki partida hori habilitatu egingo dugu eta sortu egingo da, gero ondoren litekeena da prorrateatu edo aminoratzea, gestio ereduaren arabera lortu daiteke IVA hori jaistea bertan egiten diren aktibitate batzuk akaso IVA sortuko dutelako eta orduan portzentai hortan IVA hori jaisteko aukera egongo da, edo akaso Diputazioarekin hitzarmen baten bitartez edo akordio baten bitartez ere finantziaioa lortu daiteke edo dirulaguntza batzuk lortu daitezke IVA ba... reperkutsioa ere ba... ahal den neurrian leuntzeko.

Orduan, momentuz prudentzia printzipio bati jarraiki ehuneko ehunean sortzen da, zeren soportatu behar baldin bada, eta ez da guk esaten dugun zerbait eta diskutitu dut eh? asko, saiatu naiz IVA hau ez sortzeko ideiak eta zirrikituak bilatzen baina azken finean ni ez naiz kontuhartzailea, kontuhartzaileak bere lana egin behar du, politikoak berea, guk gure lana egin dugu eta hona aukera egoki bat ekarri dugu Frontoia aurrera ateratzeko eta aukera horri guztiok eman diogu babesa eta teknikariak bere lana egin du eta argi esaten du IVA udalak ordaindu behar duela Frontoiaren kontsumidore finala den heinean, hau eta beste edozein ba... ez dakit, obra publikotan bezalaxe, berdin berdin

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, ba...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Autobusarena ez didazu aitatu eta beste gauza bat, adibidez, egia da, udalak ordaintzen duela azkenengo kontsumitzaile denean, ordaintzen ditu

obretan, ordaintzen du papera erosten duenean ,edo udaletxerako banderak erosten dituenean. Baina adibidez, beste hitzarmen urbanistiko batetik lortu zenean konbentuaren jabetza ez zuen, nik dakidala, IVA ordaindu. Orduan zergatik kasu batzuetan bai, eta beste batzuetan, ez? Hitzarmen urbanistikoaren edukia denean -eta onartzen dizut lehenago esan duzun bezala formulazio juridikoa lehenago zegoena eta gaur egun planteatzen ari zaretena desberdinak direla, eta hortik etorri daiteke, eta prudentzia printzipio bat aplikatzea ondo deritzot eh?- Dena den, autobusa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Dena den aurreko hitzarmenean, udalak berdin berdin soportatu behar zuen IVA, bueno... ez dakit pena merezi duen, emango dizut txostena, eduki ezazun hemen nik uste dut nahiko aspertzen ditugula bestela ere eta txosten hau irakurri eta gero oraindik ere esaten dituzun horietan mantentzen baldin bazara, ba... teknikariek hitz egin, zeren, alferrik da, alferrik da gure artean tematzea eta nik dakidala ba... ehuneko aztergaiak orden bat dauka, Alkateak zuzentzen du plenoa eta beste gai baten inguruan hitz egiteko ba... bukaera aldera helduko diogu horri ere baina....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ez dago, eskari-galderik

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez dago, bueno... dena den kostea autobus zerbitzuaren kostea 18.000 €tako da, bere garaian 30.000 €tako partida sortu zen arren ondoren zerbitzu hori 18.000 €kin gehi BEZ jarri zen, 20.000 € ez da iristen horregatik hortik 10.000 € jaisten da eta bestean hitz egin genuen autobus zerbitzuaren inguruan eta gaur berriz ere ba... gauza berdina esateko ba... ez gara... ez gara arituko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ba... besterik gabe, bozkatzera pasako gara, kreditu aldaketa PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Abstentzioa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Abstentzioa; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde eta EA-k ere alde,
Beraz, onartutzat ematen da,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 8 botu (1 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 2 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 INDEPEN-DIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 4 botu (4 EAJ-PNV)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 8 votos (1 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 2 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 INDEPEN-DIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0
Abstenciones: 4 votos (EAJ-PNV)

LEHENENGOA: ZUMAIA
UDALEKO 2011. URTERAKO
6. KREDITU ALDAKETA
ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR
LA MODIFICACIÓN DE
CRÉDITO NUM. -6- DEL 2011
DEL AYUNTAMIENTO DE
ZUMAIA.

BIGARRENGOA: Erabaki hau
legeak agindutako eran Gipuzkoako
Aldizkari Ofizialean argitaratzea
jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal
forma el presente acuerdo en el
Boletín Oficial de Gipuzkoa para
general conocimiento

Eta orain bai Hirugarren puntuaren bigarren azpiatalari ekingo diogu
**ZUMAIAKO 18 HA-KORTAKO (LEHEN 32 HGA) ALDAKETA
XEHEKATUA EGITEKO EGITASMO BEREZIAREN BEHIN
BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BALDIN BADA.**

Hau ere, birritan daudeneko hirigintza batzordean hitz egina, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Iñakik dion bezala, hirigintza batzordean honen inguruko informazioa eman da eta Zumaia Lantzenen ere gai hau jorratu izan da, Zumaia Lantzenen eskaera bati erantzuten diogu, Zumaia Lantzenek bertako Plan Bereziaren aldaketa puntual bat aurrera eramán du eta bueno aldaketa puntual horren helburua da, bere garaian Kostas-etako uste dut Kostas-etako deslindeak eremu hortan zeuden aprobetxamenduei eragiten zien galera ba... ekiditea eta zeuden lekuan erabilgarri ez zeuden lekutik ba... erabiltzeko moduan egon daitezkeen beste partzela batetara eramatera, bai partzela bat eta bai bestea udalarenak ziren, beraz, Kostaseko deslinde hark sortutako ba... distorsio edo eraikigarritasun galera hura ekiditeko Plan Bereziaren aldaketa puntual hau.

Batzordean aho batez onartu zen eta gaur hona ekartzen dugu ba... plenoak berea egin dezan proposamena

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek, zerbait esateko, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, galdera bat

Orain artean Costaseko deslindea nolabait desaktibatzeke edo zuzentzeko egin dituzuen saiakeren berri jakin nahiko nuke, lau urte hauetan. Eta

hortaz aparte... orduan, gaizki ulertzen ez baldin badut, lehenago -A7- izena zuen partzela horretatik, Costaseko deslindeak harrapatzen dituen aprobetxamenduak, nolabait trasladatu egiten dira -B1- izena zuen partzelara.

Partzela honek lehen ere altura bat baino gehiago zeukan, eta ez dakit, zen –“equipamientos”, “servicios”- edo zer zen, nola da gauzagarria errealitatean? –A7- zen horretatik honuntza pasatako eraikigarritasun hori nola gauzatu daiteke?

Eta bigarrenik –B1- partzela horretan Zumaia Lantzen ez da jabe bakarra, beste bi jabe ez dakit ze portzentaietan zeuden, bere egunean –A7-ko repartzelazioko jabeak zirenak eta orduan Urpek erostea nahi zuen hartan edo nolabait libratzeko egin ziren trasladatu –B1- honetara, eta horiek...hauei –B1-ean eman zitzaizkien –A7-ko hartan zeuzkaten aprobetxamenduen pareko edo egiten zirenak.

Orain -A7-koak pasatzen badira –B1-era Zumaia Lantzenek eskuratzea... bueno bere aprobetxamenduak handituta ikusiko ditu, baina baita berekin batera jabekide direnak ere beraien aprobetxamendua handituta ikusiko dute eta horrela bada..., eta ez bada bueno... ezta! Eta horrela bada zeren truke? nola egiten da?, eskerrik asko

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, bere garaian Kostasek bere deslindearen berri eman zuen, exposizio publikoa egin zen eta exposizio publiko hortan udaletxe honetatik ez zen inongo alegaziorik egin eta ondoren onarpen definitiboa jaso zuen, gu udaletxera sartu ginenerako hori guztia ia... tramitatuta eta onartuta zegoen eta deslinde horren eragina ba... aurretik antzeman eta aurretik... ekiditzekotan aurretik zen momentua.

Gertatzen dena da orain hori ekiditeko egin beharreko gestio eta egin beharreko inbertsioak azkenean deslinde hori mugitzea Kostasen... Kostasek hori mugitzeko egin behar zen dokumentazio guztia egitea ba... guri komentatzen ziguten etxeko teknikariek eta Zumaia Lantzenekoek gehiago kostatzen zela Kostasen deslindea lortzea, deslinde horren bitartez errekuperatzen genuen aprobetxamendu bera baino, orduan erabaki zena zen deslindea dagoen bezala utzi eta aprobetxamendu hori beste eremu batetara eramatea, aprobetxamendu hori ba... Arkitektoa... aprobetxamendu horren enkajea edo... Udal Arkitektoaren aldeko txostena badauka jada, eta nik dakidala, behintzat, progresiboki gorantz joango litzatekeen mendirantz, alturan, hartzen joango litzateke eraikin bat izango litzateke eta lortu nahi dena eraikin horrekin da ba... erreferentzialtasun bat poligonoaren sarreran dagoelako eta eraikin ba... enblematiko edo eraikin ba... beste itxura bateko ba... horrelako uniforme hortatik ateratzen den eraikin bat egitea bilatuko litzateke eta noski bertan dauden jabeak ba... Zumaia Lantzen eta beroien artean ia egin dituzte egin dituzten gestioak, ba... beroiek lehen zituzten portzentaiak egokitzeko gaur egun dauden aprobetxamenduen baitan, lehen hamar baldin bazeuden eta beroiei bat

tokatzen baldin bazitzaien, orain hogei baldin badago erdi tokatu zaie, redistribuzioa ez dakit zein den, baina redistribuzioa... beroiek zuten berdina izaten jarraituko dute eta udalak hor zuena gehi beste eremuan zuena edukitzea pasatuko da, Eta ez dakit, galderaren bat....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste bateren batek, zerbait, Dudaren bat, Ezerrez, ba... bozkatzera pasako gara, PNV

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EA-k ere alde botua, Beraz, onartutzat ematen da,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

LEHENENGOA: ZUMAIAKO 18 HA-KORTAKO (LEHEN 32 HGA) ALDAKETA XEHEKATUA EGITEKO EGITASMO BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA AHO BATEZ EMATEA,

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

Eta gai hontan hirugarrenko puntua,

ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 17 AREA-ARTADIKO ERAIKIGARRITASUNAREN ZATI BAT UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ERREGIMENERA ATXIKITZEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hau ere dagoeneko urte luzez eztabaidatzen ari garena eta ikusten ari garena hirigintza batzordean, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, denok dakigun bezala Artadiko eremuan etxebizitza batzuen promozioa hasi zen, baina bukaerarik ez zaio ematen.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos (4 EAJ-PNV); 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD Y DEFINITIVAMENTE EL PLAN ESPECIAL PARA LA MODIFICACION PORMENORIZADA DEL AU 18-KORTA (ANTERIOR-MENTE ADU 32) DE ZUMAIA.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

Bertan arauak ahalbidentzen dituzten etxebizitzak, ba... gaur egungo koiuntura ekonomikoan inolako irtenbiderik ez dutelako, zorionez edo zoritxarrez edo ez dakigu, beste garai batzuetan planifikatutako eremu bat da eta garai haietan, behintzat, aukera honi ateak ireki zitzaizkion baina garai berriek ba... ikusten denez ez diote ba... aurrera jarraitzeko aukerarik ematen,

Helburua guzti honen helburua izango litzateke auzo horren egoerari irtenbide bat ematea, zeren, auzo hori momentu hontan ba... urbanizazio lan gehienak eginak ditu mendian eta inguruan egin beharreko ba... eskabazio eta deformazio gehienak eginak daude, baino momentu hontan guztiz utzita dago.

Bere garaian arauak bertan ematen zuten aukera zen 23 etxebizitza egitea bertako eremuan, 12 bifamiliar, 6 bloketan banatuta eta 11 unifamiliar. Etxebizitza oso haundia gainera. Etxebizitza bifamiliar bakoitza 300 metro karratu baina gehiagokoak izango ziren eta unifamiliarak oraindik eta haundiagoak.

Kontua da gaur egun ba... etxebizitza horiek erosiko duenik, behintzat, ez dutela topatu eta hori guztiz bloketatuta dago.

Egoera hori ikusirik eta bertako egoera ikusirik promozio hori Zumaian egon daitezkeen beste behar batzueri ere erantzuteko moduan jarri nahi izan dugu eta promozio horri ere ba... aurrera jarraitzeko aukera bat eman nahi izan diogu, zeren, gaur egun dagoen bezala ba... iruditzen zaigu ezin okerrago dagoela.

Eta proposamen desberdinak promotoreak egin ondoren eta proposamen horiek hirigintza batzordean onartu ez zirenez, azkenean gu, geuk, Udal Gobernu honek ba... proposamen bat landu, garatu eta adostu du eta hori da gaur hemen bozkatzera gatozena.

Proposamen hau egin aurretik, bertako auzotarrekin ere hitz egin genuen, beroien oneritzia ere eduki nahi genuelako eta egindako proposamenarekin ere bat zetozela ikusi eta gero proposamen honi aurrera bidea edo proposamen honekin lanean hasi ginen.

Kontua da, 12 bifamiliar egin beharrean, proposamen berrian eta arau aldaketa puntual edo plangintzaren aldaketa puntual honen bitartez egingo den aldaketaren muina hortan datza, 12 bifamiliar egin beharrean 6 bifamiliar egitera pasatuko litzateke, eta beste 6 bifamiliar 3 bloketan eta beste 3 blokeak 5 etxebizitzako bloke txikiak izatera pasatuko litzateke.

Beraz, 12 bifamiliarrez 6 eta 15 etxebizitza.

Etxebizitza guzti hauek tasatu municipalak izango liratezke regimen permanentea edo betirako eta beste etxebizitzak zeuden bezala geratuko litzateke.

Beraz, 23 etxebizitza libre egiteko programatuta zegoen eremu hortan, 32 etxebizitza egiteko aukera dakarkigu mahai gainera, etxebizitza gehiago dira, 9 etxebizitza gehiago dira baina 15 tasatu dira eta 17 libre, lehen 23

libre zeuden eremuan orain 17 libre egongo dira eta lehen babes mailarik ez zuten etxebizitzak egin behar ziren eremuan 15 tasatu egingo dira.

Honekin lortzen duguna da edo lortu nahi duguna da San Migelera igoko diren auzotar berriak Zumaiatik igotzea San Migelera edo San Migeletik San Migelen geratzea, zeren, etxebizitza tasatu municipal hauetan lehentasuna noski Ardantzabidekotan eta Zumaian egiten diren beste Babes Ofizialeko etxebizitza guztietan bezalaxe Zumaiarrak edukiko dute, eta lehen nekez 140 edo 150 miloi euro ordaindu ahal izango zituzketen ba... 300 metro karratu baina gehiagoko etxebizitzetan sartzeko Zumaiarrek. Orain etxebizitza tasatuak egitera ahalbideratuko litzateke eta honekin promozio horri ba... urratsak ematen jarraitzeko aukera irekitzen diogula iruditzen zaigu etxebizitza tasatua ere bideak irekitzen dizkiogula iruditzen zaigu eta eskaintza hau hirigintza batzordean eztabaidatu, bertako promotorearekin eztabaidatu dugu eta gaur hona ekartzen duguna da eztabaida guzti horien ondorioz ateratzen den hitzarmen urbanistikoa ba... bertan dagoen eraikigarritasun berdinarekin, bertan metro karratu kopuru berdina eraikiko baita bai lehen eta bai orain, ez da metro gehiago eraikiko, egingo dena da etxe mota hontako etxebizitzak egin beharrean 90 metro karratutako etxebizitzak egingo dira eta tasatuak egin beharrean edo libreak egin beharrean hobeto esan da, tasatuak egingo dira.

Eremu hau arau ordezkatzailan urbano bezala agertzen da eta honek esan nahi du eremu hontan jada ba... eman beharreko zerbitzu guztiak emanak dituela udalak edo horrela izan beharko luke behintzat, zoritxarrez, hori ez da horrela, eta oraindik badaude zerbitzu batzuk auzo horretara iritsi ez direnak, promozio honen haritik ba... sare bat sortuko da eta sare hori ba... ondoren ur zikinen jasoketa egingo lukeen sare hori ondoren ba... udalak berak, konektatu beharko luke sare orokorrera. Sare orokorrak udalak igo behar baldin badu eremu urbano hortara eta akordio hontan ere ba... konpentsazio edo kopuru bat adosten da udalak sare hori denboran eta hori da helburua San Migelera igoko balu, urbanizazio proiektuan aurreikusten diren beste zerbitzu batzuk edo beste infraestruktura batzuk ba... ez liratezke egingo, fosa septikoa, fosa septiko bat egitea horrelako etxebizitza kopuru bat eta gaur egunean ba... lege hau berak ere ez dugu uste baimentzen duenik eta helburua da San Migelen sortuko diren baliabideekin San Migelerako beharrezkoak diren zerbitzuak egitea ere bide batez,

Beraz, fosa septiko hori ekidin eta urak behar bezala jasotzeko akordio honek ere bere paragrafoa edo bere tartetxo bat du eta guretzako garrantzitsuena dena ba... bertan etxebizitza babestuak ere tasatuak egiteko aukera irekitzea eta San Migelek gaur egun duen itxura txar hori pixkanaka buelta, buelta ematen hastea,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno... galderak egiteko txanda bat, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ez, bakarrik esan atentzioa deitu didala, eman didala... eman duzun esplikazio guzti horretan aipatu dituzu tasatuak izango direla 15 etxe. Lehenago horrelakorik ez zegoen eta egia da, tasatu horiek “permanenteak” izango direla, kalifikazio permanentea edukiko dutela eta hala izango da...

Baina... ez duzuna aipatu da udalak 9 hilabetetako epea izango duela 15 etxebizitza tasatu horientzat erosleak aurkezteko promotoreari.

Eta 9 hilabetetan ez badu udalak 15 erosle lortzen, orduan promotoreak hemen hitzarmenean jartzen duen modura – “la promotora podrá transmitir las viviendas libremente sin los límites de precio y destinatarios y sin sujeción al régimen legal que se prevé en la Estipulación SEGUNDA”- hau da, egia da, tasatuak direla, egia da kalifikazioa behin betikoa daukatela baina baldin eta Udalak 9 hilabetetan 15 interesatu topatzen baditu eta helarazten baldin badizkio promotoreari, bestela denak libre bihurtuko zaizkio eta promotoreak erabakiko du edo salduko ditu berak erabakitako prezioetan eta baldintzetan ahal duenari.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek gehiago, Emiliano

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Bueno, acaba todo esto después de un montón de tiempo dándole vueltas al asunto, no sé si para bien o para mal pero es un poco como si nosotros mismos, nos estuviéramos de una forma indirecta intentando cerrar la puerta a la posibilidad de las ventas de Odieta, salen 32 en Ardantzabide, 15 aquí, si se puede empezar Puntanueta estamos quejándonos y con razón de que es una promoción que por determinadas circunstancias de todo lo que ha ocurrido Odieta es deficitaria, y va a ser difícil que pretendamos vender unas viviendas que tenemos ahí en unas condiciones que son las que son cuando van a tener todo tipo de posibilidades los Zumaiarras de acceder a unas viviendas en mejores condiciones que las que tienen en Odieta e incluso a un inferior precio, pues puede ser una buena opción la de Artadi, no digo que no, pero nos están metiendo en un callejón sin salida en algo que tenemos que darle una salida lo antes posible, porque al final vamos a tener ahí un montón de dinero invertido sin posibilidad de recuperar y la situación que depende de Zumaia Lantzen ése tema, es la que es aunque hayamos aprobado hoy un superavit de 2.500.000 de pesetas en... que

aunque no tenga que ver con el punto pero sí tiene sentido, me refiero en su... en sus cuentas anuales

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek gehiago,
Bai Aitor,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Gauzatxo bat nahi dut esan bakarrik eta da urbanizazio hau ez dudala onartzen, o sea... badakit nondik datorren histori hau baina beti astakeri bat iruditu zait hainbeste etxe egitea San Migelen eta bueno... bakarrik hori nahi dut ba... garbi geratzea,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek gehiago,
Ez, ba... erantzuten dugu eta gero bozkatzera pasatzen gara,
Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bueno... Emilianok esan duenari erantzun nahiko nioke, ez dakit, neurri batean usten dut esan duela gure buruari harriak botatzenari garelako, Odietako etxebizitzak saltzen ez diren bitartean behintzat, etxebizitza tasatuen ba... aukera hauek martxan jarrita, ez dakit zer egin behar genuen Odietako etxebizitza guztiak saldu bitartean, inorei ez diegu lizentzia emango promozio guztiak etengo ditugu eta Zumaia geratzen dugu Odieta saltzen ez dugun bitartean, ba... ez dakit, ba... niri behintzat, ez dakit eh? edo aukera bat edo bestea, Frontoia nik uste dut egin beharrekoa zela eta martxan jarri dugula eta aho batez onartu dugula eta bai San Migelen eta bai Ardantzabiden egingo diren etxebizitzetara optatu edo eskuragarri eduki ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira, Babes Ofizialeko etxebizitza batzuk dira eta edonork ezin du etxebizitza hau erosi. Odietakoak aldiz ez dauka inongo restriktziorik, etxebizitza libreak dira eta salneurrian zertxobait garestiagoak badira, baina libreak diren heinean eta duten ubikazioa dutela kontuan edukita niri iruditzen zait beste merkatu batekoak direla eta beste erregla edo beste erritmo batzuetan saltzeko aukera egongo dela, Kontua da, Odietakoak abuztuan, uztailean entregatzeko moduan egongo direla eta etxebizitza beharra duenak ba... ondo datorkio ia... etxebizitza ikusi eta gero eta gutxiago saltzen da sobreplano, zorionez, lehen sobreplano –te lo quitaban de las manos- baina orain sobreplano apenaz ez

da saltzen eta bai Ardantzabiden eta bai San Migelen egingo diren etxebizitzak oraindik planoan ere ez daude.

Beraz, Ardantzabideko eta Odietako eta San Migeleko etxebizitzak, barkatu, bi urte t´erdi - hiru urte beharko dituzte martxan jarri eta bukatzen joateko. Odietakoak berriz bukatzen ari dira, bi hilabete barru bukatuta daude Odietakoak eta entregatzeko moduan eta gainera bertako erostaileak ez dute Zumaiarrak izan behar, ez dute diru-sarrera batzuk eduki behar ez dute beste etxebizitzarik ez dutela egiaztatu behar, bi merkatu desberdin bi erritmo desberdinetara, baina guztiz desberdinak diren erritmo eta merkatuak, elkar lotzea ba... iruditu zaizu eta niri behintzat iruditzen zait ez duela batak bestearekin konpetitzen denboran eta nori bideratuta dagoen ikusita,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, ba... oso ondo Bozkatzera pasko gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, lehenago aipatu dudan kontuagatik, akaso gure ustetan tasatuak egitekotan, epe "luzexeago" batean tasatuak izan beharko lukete... Abstenitu egingo gara,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Emiliano?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Aunque he dicho lo anterior, por supuesto, las he aprobado antes y las apruebo ahora. No quiere decir que estemos tirando piedras pero al final el resultado es ése. A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Sí pero cual es el voto?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Ah! A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: ARALAR- ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Abstentzioa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: eta EA-k ere alde,

Beraz, aprobatutzat jotzen da,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Espero dugu, udaletxe honek nahiko habilidade edukiko duela 9 hilabetetan 15 etxebizitza esleitzeko eta 15 Zumaiarrek...

Hala ez baldin bada egoera ba... kaxkarra izango litzateke eta aterabide bat eman behar zaio baina guri iruditzen zaigu 9 hilabete nahiko denbora badela gehiago beti hobe, ez, noski, baina 9 hilabetetan egingo da.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (1 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 1 INDEPENDIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 6 botu (4 EAJ-PNV; 2 ARALAR / ALTERNATIBA)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos (1 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 1 INDEPENDIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0

Abstenciones: 6 votos (4 EAJ-PNV; 2 ARALAR / ALTERNATIBA)

LEHENENGOA: ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 17 AREA-ARTADIKO ERAIKIGARRITASUNAREN ZATI BAT UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ERREGIMENERA ATXIKITZEKO HITZARMENA ONARTZEA

PRIMERO: APROBAR EL CONVENIO RELATIVO A LA ADSCRIPCION DE UNA PARTE DE LA EDIFICABILIDAD DEL AREA 17 "ARTADI" DE LAS NN.SS. DE PLANEAMIENTO URBANISTICO DE ZUMAIA AL REGIMEN DE VIVIENDA TASADA MUNICIPAL.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

PERTSONALA IRIZPENA:

UDALEKO ARKITEKTO TEKNIKOA DEN ELI ZUBELDIA ETXABE ANDREAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA

Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, Arkitekto Teknikoa bateragarritasun eskaera egin du, eskaera honi egin beharreko txostenak egin da daude eta joan den apirilaren 27ko Pertsonal batzordean aho batez onartu zen irizpena, berak, udaletxetik kanpo egingo lituzkeen aktibitateetan ba... muga batzuk ditu eta muga horien barnean, noski ba... bere aktibitate profesionala modu ba... liberal batean edo egiteko eskubidea duenez, eskaera egin du, txostenak aldekoak dira eta gaur hona ba... plenoak onartu diezaion ekartzen da,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bateren batek, zerbait esateko honi buruz, PNV, Bai?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, bueno... hirigintza batzordeak goizetan jarri dituzue eta pertsonalekoak ere bai, eta orduan ba.. bai batean eta bai bestean egoera berdinean aurkitzen gara... Ez, bakarrik zen galdetzeko aber... ez dakit, bere lan orduak edo

bere jornada “completa” baldin bada udalarekin, horretaz aparte, ze lan edo ze enpresetako edo zein izango den edo...

Hemen tratatu zenean orain dela hilabete batzuk edo, ez dakit, urte bete baino gehiago ingurumeneko teknikariaren horrelako antzeko zerbait, han beste zehetasun batzuk eman ziren...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, Ludotekako langile bat zen eta orain dela gutxi zen,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):
Ingurumeneko teknikariarena ere bai

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, Ingurumenekoa ere bai,

Bai, bai, bai

Baina orain dela lau bos hilabete Ludotekako langile baten inguruko bateragarritasun eskaera baten inguruan aritu ginen,

Kontua da Ludotekako langile honek bateragarritasuna eskatzen zuen beste Erakunde Publiko batetan lan egiteko, orduan Zumaiako udaletxearekin duen kontratuaren ba... % 50ean dago Zumaiako udaletxean eta langile batek ezin du eduki Erakunde Publiko desberdinekin % 100na baino gehiago den lanaldirik, orduan kasu hartan %50a Zumaiako udaletxearekin zeukan eta beste Erakunde Publiko batekin beste portzentai batean % 100etik azpitik geratzen zena.

Kasu hontan, Arkitekto Teknikoa % 100nean dago Zumaiako udaletxearekin, beraz ezin du eskatu bateragarritasunik beste Erakunde Publiko batekin lan egiteko, aldiz, bere lan ordutik kanpo Zumaiako udaletxean duen lan ordu eta arduretatik kanpo funtzio edo merkatu pribatuan lan egin dezake eta hortarako eskatzen du bateragarritasuna eta ez beste Erakunde Publiko batean lan egiteko,

Beraz, bateragarritasuna eskatzen dute biek, baina gauza desberdinentzako, beraz, portzentaien afera hori kasu honetan ez dagokio merkatu pribaturako bateragarritasuna eskatzen ari baita.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste bateren batek, zerbait esateko,
Ez

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Simplemente, se aclara éso, porque como me la había quitado un poco M. Eugenia la pregunta, ella va a seguir teniendo el 100% de dedicación al Ayuntamiento en cuanto a las horas laborables, me refiero

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bale, bale
Oso ondo,
Ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: eta EA-k ere alde botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

LEHENENGOA: UDALEKO ARKITEKTO TEKNIKO DEN ELI ZUBELDIA ETXABE ANDREAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA AHO BATEZ ONARTZEA,

KIROLAK.-

ELKARTEEK ZUMAIKO UDAL-LOKALAK ERABILTZEKO MODUA ARAUTZEN DUEN UDAL ARAUDIA ONARTZEA, BIDEZKO BADIN BADA.

Hau dakizuen bezala, gero eta lokal gehiago dauzkagu udaletxean batez ere kirol elkarteei zuzenduak daudenak eta hori arautu nahiean araudi hau ekartzen dugu dagoeneko kirol batzordetan ikusia izan dena, onarpena aho bateko onarpenez, oker ez baldin banago, bai? Eta batez ere izango litzake arautzea bertan ematen diren zenbait erabilera, diogun bezala gero eta lokal gehiago daudelako eta elkarte gehiago daudelako eta ematen diren hainbat egoeren aurrean ba... beharrezkoa ikusten genuen arautu egin behar zirela egoera horiek eta azken finean egoera horiei erantzuten dion araudi bat izango litzateke, eta ez nahiz gehiago zehaztasunetan sartuko, zeren, bidali zaizue deialdietan zein den araudia e.a. eta bateren batek argibiderik nahi izango balu, ba... hementxe gaude, Bateren batek zerbait esateko, Ezerrez Ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua,

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos (4 EAJ-PNV); 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD LA SOLICITUD DE COMPATIBILIDAD PRESENTADA POR LA ARQUITECTO TECNICO D^a ELI ZUBELDIA ETXABE.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Baita ere,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, eta EA-k ere alde botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos (4 EAJ-PNV); 1 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 2 ARALAR / ALTERNATIBA; 1 INDEPENDIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: ELKARTEEK
ZUMAIAKO UDAL-LOKALAK
ERABILTZEKO MODUA
ARAUTZEN DUEN UDAL
ARAUDIA AHO BATEZ
ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR
POR UNANIMIDAD EL
REGLAMENTO MUNICIPAL
REGULADOR DEL USO DE
LOCALES MUNICIPALES EN
ZUMAIA POR PARTE DE LAS
ASOCIACIONES.

Eta eguneko azkenengo gaia:

**ZUMAIAKO TALDE MISTOAK AURKEZTUTAKO
PROPOSAMENA: UMEAK EUSKARAZ INSKRIBATZEKO
ESKUBIDEAREN ALDEKOA**

Eguerdian bozeraemaileen batzorde bat izan dugu gai hau tratatzeko,
Nerea?

Euskara batzordean ere bai ez? tratatu zen Nereak

NEREA EPELDE AZKUE AND. (TALDE MISTOA): Ez, ez, Euskara
batzordean ez zen tratatu, inor ez zelako azaldu. Quórum-ik ez zegoen eta
orduan ezin izan zen irizpenik eman. Ekarri dugu, berez EUMA-n mozioa
da baina bueno... Talde Mistoaren izenean aurkeztuko dugu,
Hori eskatzen du UEMA-K Euskaraz inskribatzeko eskubidearen aldeko
mozio bat da,
Bueno... irakurri egingo dut, azkar batean

**UMEAK EUSKARAZ
INSKRIBATZEKO
ESKUBIDEAREN ALDE**

**A FAVOR DE LA
INSCRIPCION DE LOS
NIÑOS/AS EN EUSKERA**

Udalerri Euskaldunen
Mankomunitateak proposatuta,
Zumaiako Udalak honako mozio
hau onartu du:

A propuesta de la
Mancomunidad de Municipios
Euskaldunes, **el Ayuntamiento de
Zumaia** presenta la siguiente
moción:

Lehenik eta behin, **Zumaiako Udalak** harridura eta amorrua adierazi nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen ofizialtasuna ezartzen duen legea onartu eta 28 urtera ezin delako herrian haurra euskaraz erregistratu. Erregistro Zibiletako Legean gaztelania ez beste hizkuntza ofizialak erabili ahal izateko legezko aldaketa onartu zenetik ere bost urte pasa dira, eta gure herrian ez dira behar diren neurri eta mekanismoak abian jarri euskaldunen eskubideak egikaritzeko. Horren ondorioz, euskaldunen hizkuntz eskubideen aurkako urraketak behin eta berriro gertatu dira. Zertarako hizkuntz eskubideak biderik ez badago?

Ante todo, **el Ayuntamiento de Zumaia** quiere manifestar su estupor y su indignación porque a pesar de que han transcurrido 28 años desde que se aprobó la ley de oficialidad del euskara en la CAV, hoy es el día en que no se pueden inscribir los niños/as en euskara en el municipio. Así mismo han transcurrido cinco años desde que en la Ley de Registros Civiles se aprobó la utilización de otros idiomas oficiales aparte del castellano, pero en nuestro municipio no se han puesto en marcha las medidas y los mecanismos para cumplir los derechos de los euskaldunes. A consecuencia de todo ello los derechos lingüísticos de los euskaldunes han sido conculcados reiteradamente. ¿Para qué sirven los derechos lingüísticos si no existen vías para ejercerlos?

Bigarrenik, **Zumaiako Udalak** eskatzen die dagokien arduradunei euskarak bake epaitegietan eta erregistro zibiletan merezi duen tokia eman diezaioten eta euskaldunon eskubideak beste hizkuntza ofizialeko hiztunen parekoak izan daitezten, ez baita onargarria Euskal Herriko berezko hizkuntzan jardun nahi dutenek beste hizkuntza bateko hiztunek baino eskubide gutxiago izatea. Bake epaitegietan eta erregistro zibiletan ere euskarak behar duen tokia izateko bidean, premiazkoa iruditzen zaigu ahalik eta lasterren jaiotza erregistroa, ezkontza erregistroa eta heriotza erregistroa euskaraz egiteko neurriak hartzea eta horiek euskaraz egiteko bideak jar ditzaten eskatzen diegu dagokien arduradunei.

En segundo lugar, **el Ayuntamiento de Zumaia** solicita a quien corresponda que den al Euskara el lugar que le corresponde en los registros civiles y en los juzgados de paz. El objetivo es que los derechos de los euskaldunes sean los mismos que los de los hablantes de cualquier otro idioma oficial, dado que no es aceptable que los que quieren hablar en el idioma propio de Euskal Herria tengan menos derechos que los hablantes de otro idioma. Así mismo el euskara debe tener el lugar que le corresponde en los juzgados de paz y en los registros civiles, para lo cual nos parece imprescindible que se tomen lo antes posible las medidas necesarias a fin de que se puedan hacer en euskara, la inscripción de nacimiento, la de matrimonio y la de defunción y apremiamos a los responsables que pongan los medios necesarios para que se pueda ejercer este derecho.

Hirugarrenik, **Zumaiako Udalak** ez du alde batera utzi nahi udalerrri euskaldunen errealitate propio eta berezituaren izaera. Hartara, gogorarazi nahi du egoera soziolinguistikoagatik eta euskararen normalizazioan duten tokiagatik, udalerrri euskaldunetan bereziki larriak direla beste administrazioek euskaldunei euskaraz bizitzeko jarritako trabak eta mugak. Euskararen garapenean dugun tokia ez da aldarrikapen hutsa, baizik eta Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeak “Euskara 21” txostenean jasotako puntuetako bat:

En tercer lugar, el **Ayuntamiento de Zumaia** no quiere dejar de lado la realidad propia y especial de los municipios euskaldunes. De modo que quiere recordar que en los municipios euskaldunes, dadas las características sociolingüísticas que tienen y por el lugar que ocupan en la normalización del euskera, son especialmente graves las trabas y las limitaciones que imponen otras administraciones a los euskaldunes para hacer su vida en euskera. El lugar que ocupamos en el desarrollo del euskara no es una simple reivindicación, sino uno de los puntos que se recoge en el informe “Euskera 21” del Consejo Asesor del Euskera del Gobierno Vasco:

“Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu. Arnasgune horietan, eta ez beste; non, bilatu beharko du biziberritu nahi den hizkuntzak helduleku nahikorik, bai belaunaldiz belaunaldiko transmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikatiboei, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokienez. Arnasgune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehenasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan”. Hartara, Zumaiako Udalak eskatzen dio Jaurlaritzari hitz horiek udalerrri euskaldunetako hizkuntz politikaren oinarri hartzeko eta udalerrri euskaldunei lehenasunezko trataera garbia emateko.

“Un idioma para desarrollarse, precisa espacios de preeminencia. Es en tales nichos vitales, y en ningún otro lugar, donde el idioma que se pretende revitalizar deberá hallar asideros suficientes, tanto en lo relativo a su transmisión intergeneracional, como a las funciones comunicativas de la lengua o como a sus valores referenciales. Si no se cuidan, crean y, si fuera posible, extienden tales nichos vitales, cualquier otro esfuerzo será probablemente baldío. En consecuencia, la política lingüística de principios del siglo XXI deberá considerar claramente prioritaria la atención a los nichos vitales del euskera.” De modo, que el Ayuntamiento de Zumaia solicita al Gobierno Vasco, que tome esas palabras como base de la política lingüística de los municipios euskaldunes y les dé un tratamiento prioritario.

Laugarrenik, **Zumaiako Udalak** dei egiten die herriko euskaldunei bake epaitegian zerbitzua euskaraz eskatzeko eta zerbitzua euskaraz jaso ezean erreklamazioak jartzeko, bai bake epaitegietan bertan (hango erreklamazio orrietan), bai bestelako erakundeetan ere (adibidez, Behatokian edo/eta UEMAN). Ildo horretan, aparteko larritasuna du jaio eta berehala euskaldunen hizkuntz eskubideak urratzea, eta horregatik guraso izango direnei dei egiten diegu haurra euskaraz inskribatzeko eskaera egin dezaten. 1 egiteko idatzi eredu a udaletan edo UEMAn eskuratu ahal izango dute.

Bosgarrenik eta azkenik, **Zumaiako Udalak** konpromisoa hartzen du mozioa honako erakunde hauetara bidaltzeko: UEMARA, Behatokia, Herriko bake epaitegira eta Jaurlaritzara.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno... ba... honen inguruan bateren batek zerbait esateko, Bai, PNV, Lide

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Egia da mozio honekin eta helburuarekin ados gaudela.

Forma aldetik ba.. bueno espresio batzuk gogor xamarak ere iruditzen zaizkigu, baina egia da pixka bat ere harritu zaigula, zeren, bada denboratxoa nik pake epaitegia utzi nuela, badira zortzi urte, eta orduan ia... hasita geunden aurrenengo pausoak ematen ba... inskripzioak eta ba... bueno... bai jaiotza eta bai... pixka bat euskara bultzatzeko eta beraien

En cuarto lugar el **Ayuntamiento de Zumaia** hace un llamamiento a sus vecinos euskaldunes para que demanden el servicio en euskera en el juzgado de paz, y de no recibir el servicio en euskera, a que pongan una reclamación tanto en el mismo juzgado de paz (en las hojas de reclamaciones que se facilitan allí mismo) como en otras instituciones (en Behatokia o en UEMA). En este sentido, es de extrema gravedad que se conculquen los derechos de los euskaldunes nada más nacer, es por eso que hacemos un llamamiento a los padres para que soliciten la inscripción de su hijo/a en euskara. El modelo de solicitud lo pueden solicitar en el Ayuntamiento o en UEMA.

En quinto y último lugar, el **Ayuntamiento de Zumaia** se compromete a enviar esta moción a las siguientes instituciones: UEMA, Behatokia, el juzgado de paz del municipio y al Gobierno Vasco.

aldetik ba... bueno... dakizuten bezala oso Administrazio erdalduna da eta pertsonalak, batzuk badakite euskaraz baina beste batzuk ez, zailtasunak zeuden, baina bai beraien aldetik eta borondatea ikusten zen eta aurrengo pausoak eman da geneuzkan, ez dakit, dena bertan behera gelditu den edo ez dakit, edo beste ahalegin batzuk egin diren edo hau da... bapatean sortutako gauza bat, ez?.

Egia da baita ere Pake Epaitegiei ematen duenez oso denbora gutxi gelditzen zaiela eta ematen duenez udalek asumitu beharko dutela erregistro zibilaren gaiak, orduan ba... bueno udalek asumitzen dutenean hau dena ba.. bueno alferrikakoa izango da, baina nola ez dakigun zenbat denbora tardatuko duen prozesu honek, printzipioz eta helburuarekin ados nola gauden ba... gure baiezkoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste bateren batek, Emiliano

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Si, lógicamente no se puede tener nada en contra que la persona que quiera inscribir a su hijo en euskara lo puede hacer. Eso es un derecho y por lo tanto no puede haber nada en contra.

Ahora si choca un poco que si lees el principio de la moción, 28 años de la Ley transcurrido, 5 años que también aprobada la ley y demás, 4 años vosotros en el Gobierno y justamente en período electoral y en la última semana aparece esto. Pues parece que puede ser una casualidad pero yo creo que las casualidades a veces también se trabajan para que coincidan y dejan de ser casualidades y son intenciones concretas, porque no tiene mucho sentido de que con todo este tiempo transcurrido y los años que habeis tenido, la oportunidad en los cuatro años que tenga que llegar ahora esto, pues parece que es un juego así, de una manera entiendo como he dicho anteriormente es un derecho y no hay por qué ni siquiera tratarlo en ese sentido pero me parece que está fuera de lugar en el momento y en lugar

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste bateren batek,

NEREA EPELDE AZKUE AND. (TALDE MISTOA): Ez Emiliano ez dago intentzionalidaderik, orain dela gutxi sortu da talde bat eskubide hau aldarrikatzeke, zeren, eskubidea da eta askotan entzuten dugu bi hizkuntzak direla ofizialak eta biak dituztela eskubide berdinak, baina batzuk bide hori gauzatzen zailtasunak dauzkagu beti, beti; ez dago intentzionalidaderik mozio hau orain ailegatu da, orain sortu delako horren inguruko talde bat eta ez da subadministrazioari eta ez besteari.

Udal honek ere gauza asko erderaz egiten ditu eta horren lana egiten ara gara hori hala ez izateko eta bueno... momentu hontan etorri da mozio hau baina intenzionalidade hori ez dago,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, PILI

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bueno nik mozioaren alde egon da eta UEMA-ko partaide izan da ba... bueno...honen alde nago. Baina ez nagoena alde eta harritzen nauena da hau zergatik UEMA, o sea Zumaiako udala UEMAn sartuta baldin badago, zergatik ez duen udalak berak, edo Udal Gobernuak mozio hau berak aurkezten eta zergatik egin behar duen Talde Mistoak, orduan bai dagoela intenzionalidade bat eta bai dagoela kanpaina urre, hau orain horrela aurkezteko Talde Mistoaren izenean, eta usten dut hau udalak, berak, bere izenean aurkeztu beharko lukeela eta ez Talde Mistoak

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: De todas formas hau aprobaten baldin bada.....

NEREA EPELDE AZKUE AND. (TALDE MISTOA): Talde Mistoak aurkeztu du... azkenengo lau batzordetan

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Barkatu, eh? Orain emango dizut hitza, baina esan nahi dut hau aprobaten bada plenoan, suposatzen da udalak egiten duela bat honekin, eta beraz, udala izango dela, hori akklaratzeko bakarrik zen, horregatik ekartzen da hona.

NEREA EPELDE AZKUE AND. (TALDE MISTOA): Ez aurkeztu dugu guk, eta berriz esango dut, azkenengo hri, lau batzordetan inor ez delako azaldu euskara batzordetan, orduan ez zegoen quorumik irizpena emateko, besterik gabe,

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Bale! Orduan euskara batzorde bezala ekarri, baina ez Talde Mistoaren izenean

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Baina euskara batzorde bezala ezin da ekarri, hirigintza batzorde bezala ekarri ezin den bezalaxe, edo

diktamenak egiten dira eta botatzen dira edo talde político batek aurkezten du proposamen bezala,
En fin. Hori argituta nik uste dut bozkatzera pasako garela ia, bueno...
PNV

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): me voy a abstener porque considero que sí que hay una intencionalidad concreta en este momento

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Abstentzioa, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, PILI?

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTEA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, eta EA-k ere alde botua,

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aldeko botuak: 11 botu (4
EAJ-PNV; 3 TALDE MISTOA; 2
ARALAR /ALTERNATIBA; 1
INDEPENDIENTEA; 1 EA).

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 1 (PSE-PSOE);

LEHENENGOA: ZUMAIAKO
TALDE MISTOAK
AURKEZTUTAKO PROPOSA-
MENA AHO BATEZ
ONARTZEA: UMEAK
EUSKARAZ INSKRIBATZEKO
ESKUBIDEAREN ALDEKOA

Votos a favor: 11 votos (4
EAJ-PNV; 3 TALDE MIXTO;
2 ARALAR /ALTERNATIBA;
1 INDEPENDIENTE; 1 EA).

Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 (PSE-PSOE);

PRIMERO: APROBAR
POR UNANIMIDAD
PROPUESTA PRESENTADA
POR EL GRUPO MIXTO: A
FAVOR DE LA INSCRIPCION
DE LOS NIÑOS/AS EN
EUSKERA

Bukatutzat ematen da, baina gogoratu nahiko nuke hau azken bigarren
plenoa izango dela, izan ere azkenengo pleno tekniko bat geratuko zaigu
seguruazko aste hontan egin beharko duguna eta ikusiko dugu noiz, aktak
onartzeko eta suposatzen dut akta hau bakarrik geratuko dela onartzeko
ez? Gorka oker ez baldin banago.

Beraz, deialdia egingo dugu transkripzioa daukagunean eta aste hontan
zehar ba.....bilduko gara hori onartzeko

Eskerrik asko

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez
dagoenez, Alkate Lehendakariak
bilera amaitutzat ematen du,
arratsaldeko zortzirik hamar gutxi
direnean eta nik Idazkariak fede
ematen dut,

Alkateak,

No habiendo más temas que
tratar, el Alcalde-Presidente dá por
finalizada la sesión cuando son las
diecinueve horas cincuenta
minutos y yo el Secretario doy fé,

Idazkariak,

